


ARRASATE PRESS

Arrasate 1989ko Maiatzak 12 22 zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



Carlos Comes VIGURIkoa saria ematen irabazleari

Baditugu irabazleak

Hor goian ikus dezakezuen neskatiila, Maitane Zubiaga dugu. Gure sariketan parte hartu eta telebista ederra eskuratu du Viguri etxeari esker. Sorpresa ederra hartu zuten bere gurasoek irabazlea bera zela jakitean, sariketan parte hartu zuenik ere ez zekiten eta. Zorionak!!!. Badakizue, telebista eder bat eskuratu nahi baduzue, parte hartu ezazue fotozahar sariketan, hurrengo irabazlea zuetariko edonor izan daiteke eta. Edozein modutan, telebista eskuratu ez arren, asteroko galderari zuzen erantzunez gero wall-man bat lortzeko aukera ere baduzue.

ORAIN ETA HEMEN

Frontoia Ferial auzoan

Azken Gobernu Batzordeak frontoi ezitalia Ferixalekuan egitea erabaki zuen, eztabaida luze honi amaiera emanez. (11. or.)

“Arrasate Press”ek etorkizuna ziurtatuta

Lortu dugun arrakasta ikusita, Udalak proiektua laguntzen segituko du (12. or.)

ERREPORTAIA

Maiatza helduan guren herriko haur askok lehen jaun-hartzea egiten du. Egun berezi honetan sakremenduaz gain bazkaria eta opariak ezinbestekoak ditugu. (14. or.)

ELKARRIZKETA

Aste honetan Koldo Zuazo soziolinguista gaztea ekarri dugu gure txokora. Koldo, izatez eibartarra, EHUan irakasle da. (17. or.)

PODIUMA

Tolosa eta Retegiren arteko finala oraindik freskua daukagunean; 50. hamarkadan birritan txapeldun izandako Joxe Arriaranekin izan gara. (19. or.)



HOTZ - BERO

zibro
kamun TURBO

Kanpantorpea, 2

Tfnoa: 79 70 98 79 67 54

ARRASATE

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak:

Arrasateko Eskualde-Ospitalea	795300
Igualatorioa	790500
Santa Agedako Ospitalea	
(gizonak)	793900
(emakumeak)	794411
Buru osasunerako zentrua	799011

Gurutze gorria:

Bergara	765576
---------------	--------

DYA

Antzuola	766291
----------------	--------

Anbulatorioak

Arrasate	791357
.....	799722
Oñati	780852
Eskoriatza	798896
Aretxabaleta	797458
Aramaio	(945) 455116

Anbulantziak:

Gipuzkoako ambulantiak	458744
------------------------------	--------

Udaltzaingoa:

Oñati	780411
Bergara	761469
Arrasate	791439
Aretxabaleta	791052
Eskoriatza	790322

Ertzantza:

Arrasate	797199
----------------	--------

Suhiltzaileak:

Udal taldea	790900
Udal taldeko suhiltzaile	
burua	792072
Zubillagako Eskualde-Parkea	782800

Matxurak:

Urak (udal zerbitzua)	790900
Elektrizitatea (Iberduero)	790581

Garraioak:

Taxiak	791222
P.E.S.A.	791419

Hirugarren adinarentzako zentruak:

Iturbide Egoitza	797211
Abaroa jubilatuaren egoitza	798157

Kontsumitzailearentzako informazioa:

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta	
Erabiltzaileen Elkarteak	798777

12 OSTIRALA

— **Zinea:** Alai: "Hechizo de luna" Novedades (Bergara): "Acusados" 10,30etan.

— Bergarako jaiak:

- 23etan: Miarritzeko Oldarra dantza taldearen emanaldia, pitotalekuan.

-23etan: "Izadi" rekin dantzaldia eta zezen mekanikoa S. Martin Agirre Plazan.

— Goardiako farmazia:

Español, Iturriotz.

13 LARUNBATA

— **Zinea:** Alai: "Hechizo de luna" Novedades: "Acusados" 10,30etan.

— **Mimoa:** 6etan Amayan, Peter Robertsen "Marratxo".

— Bergarako jaiak:

- 6etan: Sokamuturra

- 11etan: Eskolarteko XVIII.

Xake txapelketa

- 12etan: Antzerkia plazan, "El vengador enmascarado".

- 16etan: Xake partidu azkarren Euskadiko 4. txapelketa.

- 18etan: Sebastopoleko titirite roak herriko plazan.

- 23etan: dantzaldia "Berakatz Band"arekin.

- 24etan: Bideberrin BAP, Eskoriatza eta Reincidentes.

— Goardiako farmazia:

Corcuera, Elcano.

14 IGANDEA

— **Zinea:** Alai: "Hufda a medianoche"

— Bergarako jaiak:

- 8etan: Sokamuturra.

- 9etan: Txirrindulari probak.

-12etan: Errotalde Kultur Etxearen inaugurazio ofiziala.

- 17,30etan: Euskadiko Dantza Askatuaren Txapelketa.

- 23etan: Espaloian, dantzaldia "camp" "Nervi6n" taldeaz; plazan "Izar", eta Bideberrin, "Angiolillo", "Heriotza" eta "Xementerio".

— Goardiako farmazia:

Irizar, Erguin.

15 ASTELEHENA

— **Zinea:** Alai: "Hufda a medianoche"

— **Hitzaldia:** Oñatiko Kultur Etxean 7etan, Emakumeen Asanbladak antolatuta: L. Chattas eta H. Banoura palestinarrena.

— Bergarako jaiak:

- 11etan: Cars kotxeak seminarioan

- 12,30etan: Kontzertua Udal Musika Bandarekin Novedadesen.

-17etan: Baltsa lasterketa errekan.

- 23etan: Camp dantzaldia espaloian. Plazan, "Lisker" eta Bi deberrin, "Antirregimen", "DDDT" eta "Enfermos".

— Goardiako farmazia:

Amezua, Santamaina.

16 ASTEARTEA

— **Zinea:** Alai: "Hufda a medianoche"

— **Hitzaldia:** AEDeko lokalean, 7etan: "Hondamen Ekologikoak: norantz daramagu mundua?" (Elhuyarreko J. Aizpurua eta I. Irzabalbeitia).

— Bergarako jaiak: (koadrilen eguna)

- 11etan: eskalada-erakusketa San Pedro Elizan.

- 13etan: dantzaldia Ikastola Aranzadi eta Xamatx taldeekin.

- 14,30etan: herri bazkaria S. Martin Plazan.

- 23etan: Egan S. Martin Plazan.

-24etan: Bitorianotxoren igoera.

— Goardiako farmazia:

A. Ruiz, Maalako Errabala.

17 ASTEAZKENA

— **Hitzaldia:** Monterronen, 7etan: Olga M^a Espinoza nikaraguarra.

— **Bideo-emanaldia:** Oñatin, Kultur Etxean, 7,30etan "Mujeres en la frontera" (Nikaraguakoa).

— Goardiako farmazia:

Morales, San Andres.

18 OSTEGUNA

— **Zine kluba:** Amayan, 8,30etan, "Falso testigo", C. Hansonena.

— Goardiako farmazia:

Ruiz Torre, FerreriaS.

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Zeharkale Estalia, 1-1. B
20500-ARRASATE -TF.797164

Laguntzailea: Arrasateko Udala

Zuzendaria: Joxe Aranzabal

Erredakzioa: Juan Luis Azkarate
Bego Zubia

Publizitatea: Amaia Garro

Maketazioa: Goio Arana

Erredakzio-kontseilua: Jose Felix
Diaz de Tuesta, Harry Zaraia, Iñaki
Mendiguren

Kolaboratzaileak: Josemari Velez de
Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele
Zuazubiskar, Patxi Montero,
Juan Martin Elexpuru, Mikel
Arregi, Eukeni Olabarrieta, Arantxa
Lizaso, Gerardo Markuleta,
Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai,
Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Mila
Galañena, Blanka Jauregi, Klarion
Taldea, Ioseba Vallés, Karmelo
Uribarren.

Inprimategia: Gertu Koop. E.

Banaketa: Orkatz Skaut-Taldea

Harpidetzak: Zeharkale Estalia, 1-
1b. Tfnoa. 797164


Copyright: ARRASATE PRESS

Tirada: 3.400 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

ARRASATE PRESSEk ez du bere gain
hartzten aldizkarian adierazitako esanen
eta eritzien erantzunkizunik.



Izan gaitezen zuhur!

Goizero, etxetik irtetear nagoela, adorezko hitzak zuzentzen dizkiot nire buruari. Horrela, lehen oina kalean ezertzen dudanean, nire izpirituak ez du zerikusirik zenbait ordu lehenago ohera eramandakoarekin. Osterantzean, hots, gogo ihardunketa baikorrik egin gabe aterako banintz porrot ziurra izango nuke eguneko ekintzetan. Beste hitzetan esanda, ezin diezaiokedala betebeharrari gogo pesimistaz ekin; ezin diot nire nahiari horrelako arinkeriarik baimendu.

Gizadia ez da bere autosuntsiduratik hain hurbil inoiz egon. Ahalegin guztiak egiten ar da —ari gure burua akabatzeko. Eta goizero ko prentsa idatziak barteko irrati nahiz telebistak aurreratutakoa dakarkigu: “homo sapiens”, Jainkoaren irudi eta antzerakotasuna, bere buruaz beste egiten ari dela, ero lasterketa bizian. Hori horrela beti izan bada ere —gogoratu Genesiseko liburuan bortizkeria nagusi dela— gure egunotako mailak marka guztiak hausten ditu.

Nik ez dut uste gizona, animalia mugatua dela konturatu denik. Hor-

txe datza, ene irudiz, buruhilketa kolektiboaren erroa. Gizona jainkotu egin da, itsutu; ez dugu igertzen norantz garamatzen materialista helburuekiko grinak. Guk, gizonok, eraman dugu mundua amildegiko ertzera. Azkeneko bultzada-txoa... eta akabo!!

Giza sistemak hortxe darrai, ahaltsuek inposaturiko indarrez. Gaurregun, aberatsak gero eta aberatsagoak ditugu, txiroak behargorritasunean gero eta hondoratuagoak aurkitzen direlarik. Eta, txarrena, gizadiaren nondik norakoak alda litzakeen gizakia arau ilun horien magalean hazten ari da. Itxaropen gutxi, bera, gure atzetik datorren belaunaldia giza arautegi desberdina inposatzeko gai ez den bitartean. Bitxieta zera da, aldaketaren bila ihardun beharko lukeena, teoriarik behintzat, ongi aseturik den gizartetik irten beharko litzatekeela. Iraultza prozesurik gehienetan bezalaxe.


Amaitu ditut lerro hauek. Gaurmahaiko argia itzali egin dut. Bihar esnatzerakoan “ze ederra den bizitza” errezitatuko dut ahopeka. Kalera irten ahal izateko.

Josemari Velez de Mendizabal

LA UNION

Garaje elektro-mekanikoa
Agentzia ofiziala

Tailerra: Zaldispe, 2
Erakusketa: Sancho Abarca, 6
ARRASATE Tfnoa: 79 97 12



PEÑACOBA
Auto-Eskola

Zarugalde, 46
Tfnoa: 79 29 93
79 14 01

ARRASATE

gili gili

Iturriotz, 9 Tfnoa: 799457

GIROA AROTZAK

Iturrioz 14, ARRASATE

HIRE

Liburu eta oparidenda
Iturriotz, 4 - Tfnoa 79 14 84

ASA ASEGURUAK

Zeuren zertara behartu gabe, aseguru mota guztien informazioa emango dizugu, zure beharretarako egokiena zein den adieraziz.

- * Etxeko Arrisku Orotarakoa
- * Auzo-Komunitateko Arrisku Orotarakoa
- * Saltokietako Arrisku Orotarakoa
- * Enpresa Txiki eta Erdi mailakoa
- * Pentsio-Fondoak
- * Jubilazio-Planak
- * Istripuak
- * Bizia
- * Automobilak
- * Erantzukizun Zibila
- ... etab

ZURE ESANETARA GAUZKAZU!!

Maalako Errabala, 33-Beheazpia
Tfnoa. 796900

ARRASATE

Non dago zuen "soldaduzka honi ez" leloa?

Egunkarietan Debalde osoko Udalo eskeinitako iragarkiak irakurri ondoren lau bat berba jaurti nahi nituzke:

Kontua da zuek eskainitako lanpostuak eskuratzeko baldintza bat soldaduzka eginda izatea dela. Baldintza hau jartzen duzuenean Espainiako Ejerzitoaren kolaboratzaile bihurtzen zarete uste dut. Zein da zuen oztopoa? Lanean ari dena soldaduzkara joan behar izatea? Soldaduzka egiten ari denaren orde lanean jarri dena lanpostu fikorik gabe ikustea? Nor da azken finean soldaduzka egiten behartzen gaituena? Eta gero, Udaletxe abertzalea dugula esan behar.

(Arrasate, Bergara eta Antzuola-ko Udalekoiei)

GAXAN

Herriari

Deba Garaiko Eskualde Ospitalean, Apirilaren 14ean, bonba mehatxua jaso zen. Ospitale honetako Zuzendaritzako kide batzuk, hitz hauek, zehazki erabili zituzten pertsonalari honen berri emateko: "Bonba-abisua, gaixoa ez den gutzia kanpora..."

Gaixoen %50ak ohea behar duela kontutan harturik, zer gertatuko zatekeen sute edo edozein tragedia suerta balitz?

Idazki honekin ebakuazio-plan erreale baten falta SALATU nahi dugu eta uste dugu Ospitale honetako Zuzendaritzaren arduragabekeria hutsa dela, erabailtzaileak ez bait du gertatutakoaz inolako informaziorik izan.

Halaber, gaixoei geratu zen pertsonalari eskerrak eman nahi dizkiogu, Zuzendaritzak eginiko agindua bete ez zuelako. Gaixok trolajuak ez dirale uste dugu eta tragedia-rik izanez gero ez direla bertan behar laga behar.

ENPRESA-BATZORDEA
CC.OO - LAB - ELA-STV
Sindikatuak

Arrasateko berrietan euskara baztertua, denontzako suspentsoa

Arrasate euskaldun Dezagun Elkarteak euskararen presentzia ahalik eta tokirik gehienetan indartzeko ahaleginean, hilero-hilero jarraitzen ari da prentsa idatzia eta euskararekiko agertzen duten jarrera aztertzen.

Azken 6 hilabetei (1988ko Azarotik - 1989ko Apirila arte) dagozkien datuak beheko kuadroan ikus ditzakezu.

Kontutan hartzen badugu Arrasaten %40a baino gehiago gai dela euskaraz irakurtzeko, begira behean aipatu datuak zifra horretatik zein urrun gelditzen diren. Beraz, diferentziak gorabehera, denontzako suspentsoa.

Gai honen inguruan erreflexio hauek bururatzen zaizkigu

— Lehenik eta behin esan nahi dugu, momentuz, informazio hau ematen duten kazetarien kontra ez dugula ezer, politika orokor batez azken maila besterik ez dira eta.

— Lau egunkari hauen inguruan, orri gehiago edo gutxiagorekin, asetero beste aldizkari edo egun batzuek argitaratzen dituzte. Hots, Hemen, Eguna, Zabalik eta el Correo Escolar.

Beste hauen bidez nahiko ote dute "egunkari inportanteetan" ematen dioten garrantzia eta nolabait konpondu?

Guri behintzat horrek ez digu ezertarako balio.


— Azkenik, egunkarietara normalean informazioa bidaltzen duzuenok (Udala, kultur-kirol taldeak, talde politikoak,...) animatu nahi zaituztegu informazio hau euskaraz ere bidal dezazuen. Izan ere, horrela jokatuz bakarrik lor bait daiteke informazioa ematen dutenak kontzientziatuz joatea eta gure hizkuntzari behar duen tratamendua ematea.

Neurketarekin jarraituko dugu, eta ea aurrerantzean zerbait hobetzen den jarrera erdalzale hau.

AEDko Salaketa-Txaloketa taldea

%	Azaroa	Abendua	Urtarr.	Otsaila	Martxoa	Apirila	GUZTIRA
DV	1	0	0,38	0	0,34	2,5	0,70
EGIN	20,6	21,0	12,7	12,8	10,7	18,5	16,05
DEIA	4	2,7	1,4	11,5	3,6	5,4	4,76
CORREO	2,2	0,6	0,57	1,3	0,17	1,1	0,99

Kirolrik egiten al duzu? Arrasaten edozein kirol egiteko leku aproposik badagoela uste al duzu?



Agustin Olaizola
(ikaslea)

Bai, futbolean aritzen naiz denbora pasatu alde. Hala ere, Arrasaten kirolen bat egiteko leku gutxi dagoela uste dut. Polikiroldegia bakarrik.




Ana Elorza
(langilea)

Bai, paseo luzeak ematen ditut eta mendira ere joaten naiz. Gustatzen zait eta egiten dut.



Marije Salterain
(langilea)

Bai, urtebetez edo ezer egiteke egon naiz baina orain dela gutxi igeri egiten hasi naiz. Arrasater nahi izanez gero, nahikoa leku dago kirolen bat egiteko.



Cesar Fernandez
(ikaslea)


Bai, nagusiki saskibaloian aritzen naiz. Denbora pasatzeko ondo dago eta horrez gain gustatu egiten zait.

L E N I Z

AUTO ESKOLA

ARRASATE-Aldai, 9-Tlf. 79.46.04

ESKORRIATZA-Arana, 13-Telf. 79.36.59



KABINETE MEDIKOA

**Medikuntza
Digestibidea
Endoskopia
Ekografia
Analiak**

Ferrerias, 1.
Tfnoa: 79 15 08

ERROTULAZIO KONTZEPTU BERRIA



- FURGONETAK, ERAKUSLEHIOAK ETA FATXADAK ERROTULATU
- BARRU ETA KANPOKALDEAK SEINALEZTATU
- ANAGRAMAK ETA LOGOTIPOAK SORTU

Gipuzkoa Etorbidea z/g (Legarre pabiloi indutrialia) Tfnoa: 79 16 98 ARRASATE

“Urtebete igaro da Pako Arriaran joan zitzaigunetik. Gure Pako handiak ustekabeen utzi gintuen, 1988ko Maiatzaren 5ean, infarto batek jota. Materialaren hautatzailea, teknikaria, intendentea, manomanistaren berezko jakinduria, gizatasun handia; gutxi hauek eskuzko pilotaren funtsa dira eta gutxi dira arrasatear honek zuen gizatasuna daukatenak. (...) Beraz, hemendik zera esatea gustatuko litzaiguke, “zerutik” entzuten badigu, hau ez doala ondo. Pelotari azpiegitura, baliabideak, marketinga, ideiak, talantedun enpresariak, enpresari modernoak...falta zaizkio”.

(Jon Trueba kazetariak DV egunkarian).

“Leitzako poeta honek (Patziku Perurenak) Arrasaten egin zituen peritaje ikasketak eta egun batetan etxera bidean autobuseko eserlekuan aurkitu zuen euskarazko liburu bati esker sartu zen euskararen munduan. “Lehenbiziko aldiz nik ezagutzen nuen mundua, haurtzaroan bizi izan nuena euskaraz espresatu zitekeela ikusi nuen, esistitzen zuela eta halakoxe zirrada sentituan, ze euskara ikasten hasi nintzen orduan bertan”.

(Joxean Agirre kazetariak “Hemen” astekarian)

“Lehen esan dut Estatu berri baten sorrerak apenas aldatzen duela gizarteriaren martxa. Baina bai, aldatzen du eta gainera, zeharo eta txarrerako, era berean diktadura sortuz gero. Hauxe da datorkiguna, ezelako zalantzarik gabe, ETA eta HBko gaur egungo buruzagiek ekar diezaguketuen autodeterminazioarekin, benetako diktadura bat pistolapean artalde bati legez norabait eroateko. Gainera, marxista-leninista duen izaerako diktadura. European sekula opartuko ez dutena eta duela 70 urte inposatu zutenek ere orain zokoratu egin dutena, izan duten frakasoaren ondorioz. Euskaldun gehienok prezio honetako autodeterminazioa gaitzetsi egiten du. Zertarako balio digu independentziak gero esklabu bilakatuko digu eta?

(Jose Idarreta bergararrak DV egunkarian)

Zer da beharrezkoa liburutegi bat ondo antolatze-ko? Zure eritziz jendeak zergatik ez du irakurtzeko ohiturarik?



Jendeak ez du irakurtzeko ohiturarik liburutegi gutxi dagoelako, daudenak liburu-fondo eskasa dutelako eta liburutegiei ez zaielako publizitaterik egiten. Irakurketarako animadore gutxi dago eta honek ere bere eragina du. Animadore hauek jendeari liburuak saldu behar dizkiote. Baina saldu hitza ez dugu ulertu behar bere ohizko zentzuan. Animadoreek literaturarekin disfrutatu egiten dutela erakutsi behar dute, gai direla liburu batekin farre edo negar egiteko, hau da, literaturarekin errealitatean senti daitezkeen sentazio berak bizi dituztela erakutsi behar dute. Jendeak hori ikustean irakurtzeko gogoia sentituko du. Haurrengan animadoreen hauen papera funtsezkoa da. Horregatik, animadore hauek asko irakurri duten pertsonak izan behar dute. Haurra, irakurtzen hasten denean, txundituko duten liburuak eskaintzeko eta era horretan literaturari gustoa har diezaioten.

Gurasoek ere eragin handia dute haurrek imitazioz ikasten dutelako.

Bestalde, liburutegi bat antolatzeko orduan lokala, altzariak, bertan lanean arituko den jendea eta liburu-fondoa dira funtsezkoak. Haurren eta helduen liburutegiak banatuz gero, haurren liburutegiaren ardura izango duen pertsona, haur literaturan aditua behar luke izan. Dena dela, azken hau Estatu Espainolean utopia da. Azkenik, esango dut liburutegi horretan haur oso txikiak sartzeko aukera izanez gero, bertako arduradunak sikologoa izan beharko lukeela.

Ana Gassó

Rosa Sensat Liburutegiko bibliotekaria

INSTITUTO MEDIKO GAZTEIZ


Oraintxe bertan, ARRASATEtik irten barik, aprobetxa zaituz gure esperientziarekin:

- * LODITASUNA eta ZELULITISA
- * ILE-ERORKETA eta ILE-ARAZOAK
- * TXIMURDURAK zlrugiarekin eta gabe.
- * TABAKOARI UZTEKO

Kontsulta: (ARRASATEn): SAIOA KULTURA FISIKORAKO ZENTRUA

Informatzeko: Tfnoa: 945/25.62.00 eta 25.63.33 (Gasteiz)

DENDARABA



MERKATAL ZENTRUA

Paz, Postas eta Independencia kalea Tfnoa: 26 79 83 GASTEIZ

BIDEO-EMANALDIA



“DAVID eta GOLIATH ”

Tokia: **MONTERRON KULTUR ETXEA**


Eguna: **MAIATZAREN 13an**

Ordua: **Goizeko 11,30etan eta
arratsaldeko 4 eta 6etan**

Prezio: **50 PTA.**

Sarrerak: **MONTERRONEN**

ANTOLATZAILEA: **ARRASATEKO UDALEKO EUSKARA BATZORDEA**



EUSKARAZKO PRAKTIKALDIAK

FAMILIA EUSKALDUNETAN

Kanpaina honetan parte hartuz euskara ikasten lagunduko diozu pertsona bati eta, gainera, Eusko Jaurlaritzak 45.000 pezeta emango dizu ordainez.

Informazio gehiago nahi baduzu, dei Udaletxera (Euskara Zerbitzua)

HARTU ZURE ETXEAN

EUSKARA IKASLE BAT!

ARRASATEKO UDALEKO EUSKARA BATZORDEA

T x a n d a k a

Hirugarren adina Arrasaten

1988. urtean, Arrasaten, Udalerrian bertan bizi diren 65 urtetik gorako pertsonen buruzko lan bat egin zen. Lan hori egiteko jarri ziren helburuak honako hauek izan ziren:

—Adin horretako beharrianak ezagutzea

—Arrasaten zein errekurtsio dugun ezagutzea, bai eta beren egoera, hedapen eta erabilpen-maila ere.

—Arrasaten dauden beharrian eta errekurtsioen arteko erlazioa interpretatuz azterketa bat egitea, errekurtsioak hobe erabiltzeko eta, hala behar izanez gero, alternatiba berriak sortzeko.

Dakigun bezala, biztanleria zahartuz doa eta beraz, pertsona nagusi edo zaharren kopurua gehituz doa. Hori horrela eta aipatu dugun lanetik ateratako datuekin, adintalde honentzako gizarte-zerbitzuak gehitu beharko direla aurrikus dezakegu.

Pertsonak nagusiek eta, batez ere, arazo fisiko edo psikikoak dituztenek zerbitzu gehiago egotea etengabe eskatzen dutela kontuan izanik, Egoitzan hemendik gutxira zerbitzuen espezializazio handiagoa egongo delakoan gaude. Espezializazio horrek bai zaharrak atenditzeko bai fisikoki edo funtzionalki errekupera daitezen izan beharko du, gaur egun zahar askok ezin bait du gauzak bere kabuz egin, ospitaleko tratamendua behar izan ez arren. Guzti hori dela eta, behar



*Ixaro Leibar**

beharrezkoa ikusten da Erreabilitazio-Zentrua eta Eguneko Zentrua eta beste hainbat zerbitzu osatzea, Zahar-eromenei kasu berezi eginez, kasu horretarako ez bait dago zerbitzu berezirik.

Zerbitzuak espezializatzeaz gain, Terapia

Okupazionalak ere egin beharko lirarteke Arrasaten (Eguneko Zentruak, Egoitza, Jubilatu Etxea, etab...), Zaharrek bizitza aktiboago, eta aktibitate eta entretenimendu gehiago eduki dezaten.

Lana egiten ari ginela, zaharren arazoak ezagutu ahal izan ditugu eta horien artean honako hauek azpimarra ditzakegu: Bakardadea, inork ez ulertzea, diru-sarrera gutxi izatea, gaixo egotea, jubilatu izateko prest ez egotea, beraien beharri-zanei erantzuteko dauden zerbitzuen berri ez egotea.

Arazo hauek nolabait konpontzeko ez da nahiko zerbitzu gehiago eta hobeak sortzea. Horrez gain, gizakiok zaharrak errekonozitu behar ditugu, bai familiaren barruan bai gizartean, eta horrela ez lirarteke baztertuta edo bakarrik egongo.

Errekonozimendu hori gerta dadin, Ongizaterako Politika behar beharrezkoa da, biztanle "guztiei" zuzenduta. Politika horri esker, zaharrek biztanle guztiak erabiltzen dituzten zerbitzuak erabili ahal izango dituzte, beraiek ere beste guztien eskubide eta betebeharrak dituzte eta. (* *Gizarte-Laguntzailea*

laburrak

■ **Errepidea, berriz**

Ignacio Unzurrunzaga, 31 urteko onatiarra hilik suertatu zen astearte iluntzean Aretxabaletako saihesbidean, Basabe poligonoren inguruan. Ignacioren Ford Orionak, Miguel Leturiaga zarauztarrak gidaturiko beste Orion baten kontra topo egin zuen. Leturiagak, istripuaren ondorioz, femurreko haustura eta politraumatismoa izan zuen.

■ **Gazte auzolandegiak**

Uztailean kanpoko 20 gaztek lan egingo dute parrokiako teilatuan dauden aurkikuntzei buruzko ikerketa etnologiko batean. Auzolandegi hauek kanpotarrentzat dira, baina hemengo gazteek Eusko Jaurlaritzak antolatutako ihardunaldi hauetan parte hartu nahi izanez gero, Udaleko Gazteri Bulegoan informatuko beharko dira, tramitazioak bertan egin daitezke eta. 11-14 urte bitartekoentzat ere, badago Estatuko hainbat Parke Naturaletan oporrak igarotzeko kanpamenduak.

■ **Elkartasuna, Emakumeon indarra**

Emakumeen mugimenduaren errealitatea hurbilgotik ezagutzeko, Emakumeen Asanbladak Palestina eta Nikaraguako emakumeak gonbidatu ditu. Hilaren 15ean eta 17an, Oñatin eta Arrasaten hitzaldi bana izango dira (ikus agendan).

■ **Monterroneko eskenatokia erreformatuko**

Jose Miguel Toledo arkitektoak zuzenduko du Monterroneko eskenatokia erreformatu eta handitzeko obrak. Lanak 3 milioiko aurrekontua izango du. Erreforma behin eginda, espektakuluak plazaratzeko eskenatokiaren erabilpena gehiago indartu nahi da.



Almacén del Mueble Mondragón
Prezio paregabeak
Zatozte

Gipuzkoa Etorbidea, 6 Lehena behea Legarre

URRATS

AHOLKULARITZA

GARIBAI, 3

Tfnoa: 79 87 74

ARRASATE

Eskualdeko Ospitalea eta Epeleko Isurtegia, Mankomunitatearen gai zerrendan

Asteazken iluntzean, Antzuolan egindako Mankomunitatearen hilabeteroko batzarrean hainbat gai interesgarri tratatu ziren. Besteak beste, Udalek Eusko Jaurlaritzarako Osasun Kontseilaritzara bidaltzeko dokumentua onesteko proposamena; eta Deba Garaiko Udal Elkarteko hondakin geldoentzat Epele inguruko ibarbide batean isurtegi kontrolatuaren proiektuaren behin betiko onepena. Gogoratu behar da alkateek



Eskualdeko Ospitalea, berriz gai zerrendan

Gasteizen egindako Ospitalearen berrikuntzarako proiektua gutxienezkotzat jotzen dutela.

Hauetaz gain, aurtengorako Eus-


kadiko Foru Entitateen Zerbitzupeko pertsonalgoaren enplegu baldintzak arautzen dituen akordioaren onepena; eta I.C.S.A.k egindako Deba Garaiko Udal Elkarteko lanpostuen balorazio pertsonalaren mailen egokitzapena burutuko da.

Batzarrean, Xabier Zubizarretaren lehendakaritzapean, Deba Garaiko bakoitzaren herriaren populazioaren arabera, hamasei ordezkari (hauen artean, sei alkateak dira), hartzen dute parte:

Arrasateko lau ordezkari, Bergarako eta Oñatiko hiruk, eta Eskoriatza, Antzuola, Elgeta eta Gatzagako batek.

Puntu guztiak onartu ziren Plenoan

Aurkeztutako puntu guztiak onartu ziren joan den ostiraleko plenoan. Onartutako gaien artean, oraintsu bukatutako lanpostuen balorazioa egiteko azterlanetik ateratako ordainsari-mailak aplikatzeko proposamena aipatu behar da. Hau, atzeraeraginezko izaeraz balioaz, aurtengo urtarrilaren 1etik aplikatuko da. 16 udal lanpostu berriei dagokienez, eztabaida luzea izan ondoren, azkenik onartu egin ziren. Eztabaida lanpostuak arautuko dituzten oinarrien inguruan sortu zen. Horrela, arrasatearra izateagatik, puntu ezberdinak ematen ziren, postuaren arabera. EAK bere desadostasuna azaldu zuen honen




Jesus Egiguren plenoan izan zen

aurrean. Eta LH 2 izateari ematen zitzaion balorazioari buruz, PSOE, bere aldetik, ez zen ados agertu. Azkenean, aldaketa batzuekin, lanpostu guztien oinarriak onartu ziren.

PSOEek aurkeztutako lau mozioetatik, hiru onartu ziren; "Autonomia lokaleko Europako gutuna, Udalak indartzeko marko bezala", "Arrasatek ez du nahi bonbarik ezta pakete-bonbarik", eta "Aurtengo Udal iharduketari buruzko mozioa" izenekoak, hain zuzen. "Kartelak ezartzeari buruzko Udal arauak onar daitezten" izenekoak; 14 ezezko, abstentzio batez (EE), eta baiezko 5 botuekin (PSOE) ez zen onartu.

Azkenengo ordu laurdenean Parlamentuko Lehendakaria den Jesus Egiguren izan zen.



AHIZKE-CIM Coop. E.

ACEIG-FECEiko kidea

Cambridge Unibertsitateko PETeko
Batzorde Antolatzaileko Kidea

Alemana
Frantsesa
Ingelesa

Haurrak
Gazteak
Helduak
Enpresak

Maila guztiak
Azterketarako prestakuntza
Ohizko ikastaroak eta trinkoak

Loramendi 7, Tfnoa: 79 01 32

APARTAMENTU,
ETHEBIZITZA
ETA
BUNGALOWEN

**SALMENTA
ETA
ALOKAIRUA,**

**TORREVIEJA
ETA
VILLASOLLOSA**

Informazioa:
Enrique Mendieta
Kontzesiño kalea 6, etxabea



Bi Europarlamentarik LKA bisitatu dute

Europarlamentarien bisita

EEK gonbidatuta, Ortzadar-GRAEL taldeko bi kidek LKA bisitatu zuten asteartean. Paul van Doorslaer nekazari belgiarra eta

taldearen laguntzailea, eta Egbert Nitsch, Alemania-ko Berdeen taldeko europarlamentaria, Juan M^a Bandrés eta José M^a Agirre diputatu foralarekin batera. Talde kooperatiboaren gaineko audiobisuala ikusi ondoren, Alfonso Gorriñoñogoiarekin bildu ziren. Bi eurodiputatu hauek, beste 6 lagunekin batera, Euskadi bisitatzen ibili dira aste honetan eta, hona etorri baino lehenago, Zarauzko hondartzan izan zuten bilera. Bisitaren helburua; Europako Parlamentuan talde berberaren kideak diren EEkoekin eritzi-trukaketa izatea eta, aldi berean, datorren Maitzaren 26an hasiko diren hauteskunde-kanpaina prestatzea.

El Ferialeko frontoiaren proiektua, onartuta

Azkenean esan daiteke, oker ibiltzeko arriskurik gabe, arauzko frontoia El Ferialen eraikiko dela. Gogoratuko duzue, gai honen inguruan eztabaida luzea izan da; proiektu ugari (Iturripe, Zaldibar) azaldu zirelarik mahai gainean. Proiektua Ortega arkitektoak prestatuko du, eta hau oraindik zehazteke dagoen arren, Udalaren asmoa obrak aurtan bertan adjudikatzea da. Aurtengo aurrekontuetan obren lehendabiziko fase-



Zaldibar dagoenetan geldituko da

rako 75 milioiko kontusaila dago. Zaldibar proiektuaz talde eta herritar askoren kontrako eritzia ikusita, Pilota Eskolakoak izan ziren El Ferialekoa plazaratu zutenak.

■ **Arratoiekin akabatzeko plana**
Arratoiekin akabatzeko urtebeteko plana burutuko da. Lan honen adjudikazioa, 900.000 pta.ko aurrekontuaz, CESPak lortu du.

■ **3.500 landare iraunkor**
Arrasateko lorategietarako 3.500 landare iraunkor erosiko dira. Landare mota hauek, biltegietan tratatuz, denbora luze irauten ei dute.

■ **“Afrikako Herriak” kultur astea**

“Nazioarteko Komite”ek, Udalaren laguntzaz, datorren Ekainaren 5etik 9ra Afrikako Herriez kultur astea antolatuko dute. Hainbat hitzaldik eta bideo emanaldik osatuko dituzte ihardunaldiak.

■ **Hipertensoentzako ikastaroa**
“Plan Mondragón” izenekoak hila- ren 16tik hasita, eta sei ihardunalditan banaturik, Monterronen hipertensoentzako ikastaroa antolatu du. Ihardunaldiak arratsaldeko 7etan hasiko dira.

Ikastaroan, besteak beste, honako gai hauek tratatuko dira: prebentzioa, eguneroko bizitzaren ohiturak, elikadura eta dietetika. Esan behar da helduen %20ak hipertentsioa duela. Interesatuak, begira ezazue osasuna, 23. orrian.

■ **Ahizke**

Ahizke-CIMEk bost beka eskaini dizkie Ahizken ikasturtea gainditu duten ikasleei. Atzerrian edo koloniatan egonaldiren bat egin behar duten ikasleentzako ere hiru beka eskeini ditu. Informazioa: Ahizkeko Idazkaritzan, Loramendi kalea 7.

LASAGABASTER

JANTZIDENDA

Bertan izango duzu beti modako gauzarik onenen aukera zabalena

Garibai, 9 Tfnoa:798997



H. Centeno, "UNTS"ko kidea


El Salvador: "Hauteskundeek USAre interbentzioa legitimatze baina ez dute balio"

Humberto Centeno, "Unión Nacional de Trabajadores Salvadoreños" taldeko ejekutibaren partaidea joan den ostiralean Arrasaten izan zen. "Nazioarteko Batzordeek" antolatuta, hitzaldia eman zuen. Honetan, El Salvadorreko Martxoaren 19ko hauteskunde

osteko panorama politikoa azaldu zuen: hauetan ARENA, talde ultraeskuindarra eta "Heriotzaren Eskuadron"en sortzailea, garaile suertatu zen. Hau dela eta, hemendik aurrera gudua geroago eta zabala eta bortitza izango da. Centenok bere herrialdearen borroka, "munduko potentziarik handienaren kontrako borroka" zela adierazu zuen.

Azken urte hauetan, gosez jota, guduaren ondorioz edo "Heriotz Eskuadroi"engandik ihes eginda, milioien bat salbadortarrek alde egin behar izan dute euren aberritik.

Berak ordezkatzan duen taldeaz, esan behar 1986an sortu zela eta orain arteko batasun handien lortu duen erakundea dela. ARENA taldeko burua den Alfredo Cristianik gutxi barru Gonzalez bisitatuko duenez, Centenok eskaera bat egin zuen: Estatuko biztanle guztiek "merezki" duten harrera eskeintzea.



6 hilebetetan 1.700tik 3.400 aletara pasatu gara


"Arrasate Press"ek aurrera egingo

Sei hilabeteko behin behineko etapa bukatu ondoren, Udalak orain arte bezala proiektu honetan laguntzea erabaki du. Hurrengo Enplegu-Sustapenerako Programak irteten duenean, lau langile (bi kazetari, administrari-publizista bat eta auto-edizio-teknikaria) kontratatuko ditu. Bitartean, eta Uztailaren 31 arte, orain bertan ari garenoi kontratuak luzatzea ere erabaki du.

Gazteentzako sexualitatea

"Famili eta Gizarte-Heziketa"rako Zentruak 17-25 urte bitarteko gazteentzako sexualitate-ikastaroa antolatu du. Ihardunaldietan, honako gai hauek tratatuko dira: sexualitatea orokorrean; antisorgailuak; sexualitate-ereduak eta geure harreman sexualak.

Ikastaroa M^a Karmen Zubillaga, sexologo eta sikologoak emango du; eta hasiera batetan 10ean hastea espero bazen ere, oso jende gutxi apuntatu denez, astebetetz atzeratu da. Ikastaroa, lau ihardunaldietan banaturik, 20 lagunentzat mugaturik izango da. Interesatuak deitu 79 04 59 telefonora, edo zentrura jo, Santa Teresa kalea 12.



Ikastaroa M^a Karmen Zubillagak emango du

JAIOTZAK

López Sanabria *Omar*, Apirilaren 29an.
Etxagibel Iturrino *Aitor*, Maiatzaren 1ean.
Gonzalez Sagasta *Maite*, Maiatzaren 3an.
Salceda Arana *Garazi*, Maiatzaren 5ean.
Larrañaga Baleriola *Ibai*, Maiatzaren 6an.
Carmona Arguello *Jon*, Maiatzaren 6an.
Gallardo Irala *Eneko*, Maiatzaren 6an.

EZKONTZAK

Aitor Otadui Arana & Rosa M^a G^a
Valverde, Maiatzaren 6an, elizan.
José Antonio Gómez Cuña & M^a Teresa
Antelo Bujan, Maiatzaren 8an, zibilez.
José Manuel Blanco Bayona & Luis M^a
Amador Marín, Maiatzaren 9an, zibilez.

**Agirre
Miota
Gestoria**

Zerga deklarazioak

Erdiko kale 28, 2.
Tfnoa: 79 34 33

**BATZOKIA
jatetxea**

Eguneroko menua
eta karta

Iturriotz 41, 79 70 41
Arrasate

LARRINGAN

auto gidarien eskola

KLASE TEORIKOA
IRAKASLEAREKIN

Garibai 3, 79 22 96 ARRASATE



Finalean seriotasuna nagusitu zen

Ostiralean Alkartun jokaturako elkartearen arteko **mus txapelketaren** finalean, **Leintze suertatu zen garaile**. Honen atzean, Torrepekoak geratu ziren; hirugarren, Egipe; eta laugarren, Uribarri. Txapelketa bi bikoteka izan zen. Leintzetik Alfredo-Gaspar eta Roman-Valentín aurkeztu ziren.

Torrepekoen alde-

tik, berriz, Melchor-Ceciaga eta Azpeitia-Arejolaleiba bikoteek hartu zuten parte. Amaieran, "Plaentxi bikote"ak alaituta, afaria izan zen.

Hona hemen **FOTOZAHAR SARIKETA**ren lehenengo bost irabazleak.

Loli Uribarren, M^a Nieves Saralegi antzuolarra, Paula Mendizabal eta Fran Fernandez. Bideofilme bana irabazi dute. **Maitane Zubiagak,** bere aldetik, **VIGURI** eta **ITT NOKIA** firmek eskeinitako 14'' koloretako telebista ederra eskuratu du.



Bisita. Lehengo egunean Eskoriatzako Irakasle Eskolako ikasle batzuk eta irakasle batek bisitatu gintuzten. Eurek ere aldizkariaren bat egiteko asmotan dabiltzela eta, hemen nola moldatzen garen ikusi gura zuten. Batzuk, ez dakigu zergatik, baina mesfidantzaz begiratu zioten kamarari.



izen propioak

José M^a Pagoaga, 39, arrasatearra, beste bederatzi errefuxiatuekin batera, Algeriatik Cabo Verdera kanporatu berria. José M^a igeltserua da, eta 15 urte daramatza errefujiatuta. Orain dela bi urte arte Iparraldean.

Juan M^a Lopez Rekarte, 27, atzelari arrasatearrak gol ederra bezain erabakiorra sartu zion Sampdoriari, Europako Birkopa Bartzelonaratuz. Alavesen sei urtez, eta Errealean hiru denboraldiz aritu ondoren, aurtengoa du bere lehen denboraldia Bartzelonan.

José Manuel Pagoaga, "Peixoto", 45. Aranguren baserriko errefuxiatua. Laugarren tokian doa HBren Europako Parlamenturako hautagaien zerrendan. "Peixoto" k 21 urte daramatza errefuxiatuta Jose Mariren anaia da.

Andoni Zubizarreta, 27, atezain atxabaltarrak Europako Birkopa lortu du Bartzelona C.F. taldearekin. Andoni UDAn hasi zen; Alavesen bi urtez ibili ondoren, Athletikera eman zuen saltoa. Bilbon 5 urte egin zituen, bi liga eta kopa bat irabaziz. Hau da bere hirugarren denboraldia Barzelonan. Euskadi eta Espainiako selekzietako atezain titularra da.

Fco. Javier Saenz de Oiza, 70, Kasedako nafar arkitektoak Eroskik Elorrion duen biltegi nagusia zabalteko proiektua egin du. Biltzei zabalduaren inaugurazioa Maiatzaren 15ean izango da. Saenz de Oizaren beste lan batzuk aipatzekotan, Arantzatzuko Baseliza eta Madrilgo Torres Blancas.

Eroski Kontsumatzaileen Komitea

Informazioa eta Formazioa.

Gure bulegoa: Uribe Auzoko Eroski dendan



ERAÑA

AHOLKULARITZA

OROTARAKO ASEGUURUAK

Kontzeziño kalea 4 - behea

Tfnoa: 79 83 95

ARRASATE

Maiatzarekin bat, hasi dira lehen jaun-hartzeak

Maiatza heltzen denean eliza kristauaren sakramentu garrantzitsu bat ospatzen dute gure herrietako haur ugari, lehen jaun-hartzea, alegia. Dena dela, ekintza hau sakramentua izateaz gain, ekintza soziala ere badugula esango dugu eta horrela elizako ekintzaz aparte, berau ospatzeko erosten diren jantziak, haurrek jantzen dituzten erregaliak eta egiten den banketea elizkizuna bezain garrantzitsuak ditugu.



Modak ere badu eragina jaun-hartzeetan

Aurten berrehunen bat haurrek

Aurten Arrasaten berrehunen bat haurrek egingo du beren lehen jaun-hartzea, herriko parrokia desberdinetan banaturik. Berauetatik gehienek maiatzean, baina San Juan parrokian egiteko asmoa dutenek Urrira arte itxaron beharko dute. Haur hauek euskaraz edo erdaraz egin dezakete beren jaun hartzea. Herri erdiko parroketan gehienek euskaraz egiten dute eta auzoetakoetan erdaraz, hala ere, San Andreseko parrokoak gero eta haur gehiagok beren jaun-hartzea euskaraz egiten duela azaldu digu. Jaun hartzea egingo duten haur hauek O.H.Oko hirugarren kurtsoa ikasten ari dira eta jadanik hiru urte daramate katekisis-era joaten.

Herriko katekista batzuekin hitz egiteko aukera izan dugu eta beraiek duela urte batzutik hona gauzak aldatu egin direla azaldu digute. "Orain haurrak katekisisera O.H.Oko lehen mailan hastidira etortzen, beren gurasoak bidalita.

Katekisisean hiru urte daramatenean beren jaun hartzea egiten dute, ez da lehen bezala jaun hartzea baino hilabete lehenago hasten zirela katekisisean". Beraiek azaldu digutenez, jaun-hartzea katekisis ikasketen barruan ulertu behar da, kontutan izanik zortzi urteko ikasketak burutu ditzeketela. Hirugarren urtea egin ondoren, haur gehienak katekisisean segitu arren, beheraka-

teko beraiei dagokien parrokiara zuzentzen dira normalean. Dena dela, norbaitek beste parrokiaren batean egin nahi izango balu ez luke arazorik aurkituko. Nolanahi ere, azken urteetan beren parrokian jaun-hartzea egiten duten haurren kopurua gehitzen ari dela adierazi digute.

Baina dena ez da sakramentua

Jaun-hartze eguna, haurrek normalean gogoratzen duten egun bat izaten da, baina askotan, kasu gehienetan ez esatearren, ondoren egiten duten bazkaria eta jasotzen dituzten opariak direla medio izango dute haurrek egun hau gogoan. Herriko jatetxe batzuetara jo dugu jaun-hartze bazkariak direla eta zertxobait jakiteko asmoz. Berauetan adierazi digutenez, urte bukaerarako hasten da jendea jaun-hartze bazkariak enkargatzen. Etxetik kanpora jateko ohitura hau orain dela hamabost bat urte hasi zen hedatzen gure artean, orain ia behar bihurtu delarik. Herriko katekisis irakasle baten hitzek azken baieztapen hau egiaztatu digute "bai, haur gehienek egiten dute bazkaria etxetik kanpo egun horretan, nik 37 haurrez osatutako talde bati ematen dizkiot klaseak eta bi izan ezik beste guztiak izan zuten banketea, gehienek jatetxe batean eta hiru batek beren gurasoen elkar-

"Jaun-hartze egunean, sakramentua bezain garrantzitsuak opariak eta bazkaria ditugu"

da igartzen omen da eta orduan igarri benetan nork bidaltzen dituen haurrak kristau ikasketak burutzeraz eta nork arau sozial batzuekin betetzeko asmoz. Dena dela, jaun-hartzea egin ondoren, katekisis klaseetara joaten den haur-kopurua urtez urtez nabarmenki jaisten omen da.

Haurrak beren jaun-hartzea egi-

tean".

Egun honetan haurrek jantziko duten arropa ere jaun-hartzearen parte dugu. Arrasateko parroketan esan digutenez, herrian haur gehienak soineko edo arropa berria eramaten dute, baina gero kalean erabili ahal izango dutena bezaz, gero aprobeitza dezaketena. Hala ere ka-

tekistekin hitz egin ondoren, puntu honetan herrian banaketa antzeko bat ematen dela esan genezake. Ohiturak direla medio, bertan jaiotako semealabak normalean kaleko arropa arruntekin joaten dira eta kanpotik etorritakoen semealabak, zuriz edo marinel jantzita joaten dira. Dena dela, arropa arruntekin joan edo arropa bereziki, egun honetan familiak diru ugari gastatu beharrean aurkitzen dira.

Eta opariak zer?

Jaun-hartzeak ospatzen direnean hurrei opariak banatzea ezinbestekoa gertatzen da. Orain dela urte batzu hurrek etxean jasotzen zuten detaileaz gain, etxez etxe joaten ziren beren jaun hartzearen oroikarriak banatuz, era honetan poltsikorako diru apurren bat lortuz. Ohitura hau galdu ondoren, familiartekoak dira hurrei opariak eta dirua banatzen dizkietenak. Santa Teresa parrokiaren katekisis klaseak ematen dituen Marijesusek horrela hitz egin digu "gehiegizkoa izaten da, hurrekin jaun-hartze egunari buruz hitz egitean, batek opariez gain hirurogeitamila mila pta. jaso zituela esan zidan, kopuru hau ezohizkoa

asmoz. Hirugarren, laugarren eta bosgarren mailetan galdetu genuen eta hogeitabost hurrez osatutako ikasgela guztietan batek edo bik ez zuen jaun hartzea egin. Garbi dago beraz, oraindik hurren ge-

de gehienek egun honetan opariak eta beraiei bereziki eskainitako bazkaria izaten dutela ikustean, beraiek ere nahi izaten dute eta gurasoak sarritan komeria egitera beharturik aurkitzen dira.



1948eko apirilaren 25a

hiengoak egiten duela jaun-hartzea. San Frantzisko elizako parrokoak honako hau esan digu "bai, badaude haurrak jaun hartzea egiten ez dutenak, baina kopuru zehatza ezin jakin

Eliza gauzak baretu nahian

Jaun-hartzeen inguruan azken urte hauetan ematen den gehiegikeria nolabait baretzeko Gipuzkoako eliza batzu neurriak hartzen hasi dira, adibidez Azkoitiako parrokiaren jaun hartzea egiten duten haur guztiak tunika batekin joan beharra dute. Arrasaten honen aurka zerbait egiten den jakin nahi izan dugu. Santa Teresako parrokiaren adibidez urtean zehar gurasoekin bilerak egiten dituzte, baina bertakoen hitzetan ez dago zer eginik, azken bileran gurasoak haserretu egin zirelarik ketekistak opariak mugatzeko esan zienean. San Juan parrokiaren bestalde, jaun hartzeak Urriaren egiten dira. Arrasateko ohitura zaharrari segituz eta bide batez Maiatzeko gehiegikeriatik aldentu nahian.

"Jendea, aurreko urte bukaerarako hasten da jaun-hartze bazkariak enkargatzen"

bada ere, dena dela berrogehitamar mila pta. jasotzea normala izaten da. Gurasoekin sarritan hitz egiten dugu baina alferrik da".

Dena dela gaur egun ez dute haur guztiek beren lehen jaun hartzea egiten. Herriko ikastetxe batera jo dugu jaun hartzea egin ez duen zenbat haur egon daitekeen jakiteko

dezakegu. Gertatu izan zaigu, hurren batek bere lagun guztiak katekisisera etortzen zirela ikustean, berak ere etorri nahi izatea eta gurasoek ez uztea". Garbi dago beraz, gure gizartean gauzak aldatuz doazela. Hau orain dela urte batzuk pentsa ezineko gauza zen. Edozein modutan ere, haur hauek haurrak segitzen dute izaten eta bere ikaski-



**BELUN
TABERNA**

Lagunarte bikaina

Garagartza Auzoa, z/g Tfnoa: 796114

ITURRIOTZ TABERNA

GIRORIK

JATORRENA !!

Tfnoa: 79 16 04




Jose Aranzabal

ELEKTROGAILUAK
Iturriotz, 15
Tfnoa: 791516



AKOBEREren garantia eta zerbitzu teknikoarekin



FAGOR SUKALDEEN HORNIDURA OSOA - OPARIGAIK

Doctor Bañez 8, Tfnoa: 791892

itesa

- * Pisu eta lokalak
- * Orube eta lursailak
- * Balorapenak

Gure aholkularitza,
gestio eta
salmenta-zerbitzuak
eskaintzen
dizkizugu

Maalako errebala, 6. 1

berango

Arotzeria orokorra
sukaldeko altzariak
kanpo eta barruko atearak
Legarreko pabiloi industrialak
(Behea) Tfnoa: 79 01 92
ARRASATE

PAPER PINTATUAK - PINTURAK

A.ZANGITU

Tfnoa: 799182 ARRASATE
Tfnoa: 761954 BERGARA

Memesa

79 42 22

FELIPE MADINA ZURAK

Zarugalde 40, Arrasate 79 13 78

YAMAHA sonora PANASONIX CEC MUSIMA
KEF Harman/Kardon ONKYO Vegas
QUAD Clener CASIO EGI
Mission baile Goodmans NAKAMICHI
HONNER BASF Televes Ortel
Zimmerman Polytone LARK Rotel
Cyrus Fujitsu Fox
JAMO JBL PIONEER KELLER PHILIPS MORESCINI
TEAC TORQUE Admiras Ortofon JUGGS
carol Alpine Estrella KONIKA UHER
Hantarex SHINTON
Tensai MELOS
Fonestar Otalora kalea Tfnoa 79 29 09

AUTO-ALDAGAILUAK ARRASATE

kotxerako aldagailu eta akzesorioak

Tfnoa: 79 61 11 Udala Enparantza (Izarra dorrea)

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI
BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....

HELBIDEA.....

HERRIA.....

Zeharkale Estalia 1, 1. b -ARRASATE- Tfnoa:79 71 64

Koldo Zuazo: "Euskara batua zuzen eta egoki egin da"

Arrasaten AED elkarteak antolatutako "Txepetx"en "Un futuro para nuestro pasado" liburuaren aurkezpen saioak orain dela hilabete bat burutu ziren. Saioetan gai ugari jorratu ziren eta horien artean Koldo Zuazok euskalkien eta batuaren arteko harremanak azaldu zituen. Gu berarekin egon ahal izan ginen eta beti gaurkotatuta duen gai honi buruz zenbait puntu argitzeko aukera ere izan genuen. Koldo Gasteizko Filofogi Fakultatean irakaslea da eta duela gutxi gai honen iguruan egin duen tesia argitaratu du.

— Arrasate Press: Euskara batua zuzen eta egoki egin dela uste duzu, ez al zen euskalkiren bat bazterturik utzi?

— Koldo Zuazo: Nik neuk euskara batua zuzen egin dela esango nuke. Batuaren oinarrian erdialdeko euskalkiak daude, gipuzkera, lapurtera eta goinafarrera hain zuzen ere. Eta Euskal Herri osoa aintzakotzat hartzen badugu, eurok dira denontzako ulerterrazanak. Begibistan dago ezin zela bizkaieran edo zubererari oinarritu, euskalki horiek, Euskal Herriaren bi bazterretan geratzen direnez, dexente aldentzen direlako gainontzekoengandik.

Bestalde, Berriko gipuzkera (Tolosa - Hernani inguruko hori) izan da Hegoaldeko euskaldunok dotorentzat eduki duguna eta hizkera horretan idazten ahalegindu ziren hemengo aspaldiko idazleak, hala

Euskara batua bi helburu betetzeko sortu zen: euskaldun guztion hizkuntza eta kultur hizkuntza izateko

nola, Mogel eibartarra, Lardizabal zaldibiarra eta beste hainbat.

Iparraldean, oster, Lapurdiko kostatarra (Ziburu eta Donibane inguruko) izan da gustokoena bertakoentzat eta hizkera horretara hurbildu dira hango idazle gehienak.

Argi dago, bada, aintzinatik bizerik egon den joerari jarraitu diola euskara batuak.

Hirugarrenik, ez da ahaztu behar Gipuzkoan eta beronen inguruetan dagoela euskara bizien eta sendoen.


— Nola esplika daiteke gaurrengun, euskara batuak horrenbeste urte dituenean, euskara batuaren aurkakorik sutsuenak bizkaiera erabiltzen dutenen artean aurkitzea?

— Hara, nik esango nuke euskara batua helburu nagusi bi betetzeko sortu zela: zazpi herrialdeetako euskaldunon hizkuntza nazionala izateko eta, bigarrenik, orain arte frantsesaren eta gaztelaniaren ziren esparruak betetzeko eta, esparru horiek, jakinaenez, kultur hizkuntza bati dagozkionak ziren. Orduan, norbaitek —bizkaitarra dela edo beste edonongoa dala— bere herriko edo auzoko herrietako euskaldunekin

berbaz jarduteko baina nahi ez badu euskara, horrentzako ez da premiazkoa izango ezelako euskara

baturik. Baina Euskal Herriko edozein lekutako euskaldunekin euskaraz jardun nahi badu eta berba egiteko ezezik, idazteko, eskolan irakasteko, aldizkari eta liburuetan erabiltzeko, fakturak egiteko eta abarretarako ere nahi badu, orduan bai, orduan derrigorrezkoentzat joko du batasuna.

Bizkaierak, bere aldetik beste arazo batzuk sortzen ditu: eskalki



Koldo Zuazo

hau berezi samarra da eta Arana-Goirenen eragina ere Bizkaian izan da beste inon baino sakonagoa.

— Zer zerikusi dute, bada, Sabino Aranaren eritziek, hau da politikoko baten eritziek, euskararen batasunarekin?

— Zerikusi Haundia. Begira, Arana-Goiri euskal herrialdeen federalismoaren aldekoa zen eta, honen ondorioz, sei euskal Estatu osatu behar zirela esango zuen. Estatu bakoitzak bere nortasunari eutsi beharko zion eta nortasun horren ezaugarri nagusienetako bat, pentsatzekoaenez, euskalkia zen. Sei euskalki lantzea zen, bada, Aranaren nahia eta ez denontzako euskara bakar bat egitea.

Egia osoa esan beharko badut, izan ziran jeltzaleen artean batasunaren aldekoak ere, esate baterako Eleizalde bergararra, Belaustegigoitia laudiarra edo Altube arrasatearra, baina jarrera ofiziala, gerraurreko urteetan batez ere, batasunaren aurkakoa izan zen. Eta Alderdi jeltzaleak indarrak gehien Bizkaian izan zuenez, herrialde horretan egon dira, zuk dioenez, batasunaren etsaierik amorratuak.



Rugbya: Arrasate Kirolak hurrengo kategoriara igoko

Durangoko azken garaipena lortu ondoren, Arrasate Kirolak taldeak dagoeneko, datorren denboraldirako postu bat hurrengo kategorian aseguratu du. Taldea, iazko denboraldian berbildutakoa, aurten kategoriarik bajuna aritu da.

Durangon Peio Iriarteren mutilek, izugarrizko bigarren zati bati esker, 6 - 12ko emaitza lortu

zuten (0 - 0 lehen zatian). Oraingo honetan honako hauek jokatu zuten: Manolo Alonso, Benantzio, Aitor Bengoa, Juanito Garai, Mikel Arregi, Imanol Aiausti, Juan Aranburu, Patxi Gorosabel, "Kako", Gaizka, Ertzilla, Iñaki Mendizabal, Egiluz, Victor Rodriguez, "Axeri" eta Mikel Biteri. Patxi bi ensaio lortu zituen.

Bikaintzat jo daiteke taldeak egindako kanpaina, eta Peio berak eskeinitako lana. Gainera jokalari gehienek oso denbora gutxi daramate rugbyari.

Igandean VII. Arrasate - Oñati

Igande honetan Arrasate - Oñati kross popularrak bere VII. edizioa izango du. Ohi denez, Portaloitik irtengo du, 11,30etan, Oñatiko Foruen Plazan amaitzeko. Guztira, asko jota ordu t'erdian egin beharreko 11,3 km. izango dira. Beti bezala, antolatzaileek busak jarriko dituzte.

Sari ederrak azkarrengi eskeintzen zaizkienak, benetan: 1. 20.000; 2. 15.000; 3. 10.000. Lehenengo beteranoari: 15.000; Lehenengo emakumeari: 15.000; Lehenengo "promesa"ri: 8.000; eta beste 15.000 pta. lehenengo kadetearentzat. Trofeoak ere banatuko dira.

Iazko edizioan 260 korrikalarik zeharkatu zuten helmuga. Irabazlea Diego García izan genuen (34: 31); bigarren, Peio Garín (34 : 53) eta hirugarren, Gaspar Esnaola (35-46). Izena emateko tokia, Portaloiko Monte Taberna, goizeko 11k arte.



Arrasate

u
t
o
e
s
k
o
l
a

●

Klase
praktiko
eta
teorikoak

Olarte, 30
79 89 89

BRANKA

JATETXEA

Eguneko menua
eta karta
Zarugalde 1, Tfnoa 79 60 10

TITARE

LENTZERIA FINA

Olarte kalea, 8
ARRASATE

OSTARKU DANTZALEKUA

ZATOZ IGANDEETAKO LOTORA! ASTE HONETAN 10.000PTAKO SARIA

Hezurak astintzeko lekuri proposena

Uribarri Etorbidea 8

podiuma

Joxe Arriaran,
birritan txapeldun

Joxe Arriaranek 1955 eta 1956ko urteetan, Soroa eta G^a Ariño Iaren kontra, eta 22-13ko emaitzaz bietan, jantzi zuen Eskuz Banakakoaren txapela. Urtebete beranduago, menisko lesio bateaz, erretiratu egin behar izan zuen, Ariñok 16-11 irabazten ziolarik. Urte honetan, hain zuzen, ezarri zen 3tik sakatzeko legea; ordurarte sakea librea zen. 1958an bere azken finala jokatu zuen, 22-7 galduz Ogetaren kontra. 30 urte ibili zen profesionala, 17 urterekin hasi, eta 46rekin bukatu.

Topikotik ezin alden du eta, ea lehen pilotariak hobeak ziren galdetu diogu. "Batzuk baietz esaten dute; beste batzuk, ostera, ezetz. Betiko eztabaida da, eta ezin dá neurtu. Lehen jokatzeko modua ezberdina zen, baina ez bakarrik modua; pilota eta frontoiak ere ezberdinak ziren". Txarragoa edo hobeak, izan ere, gauza jakina da lehen askoz pilotari gehiago zegoela. Eta Mondragoen morderoa. "Ni sartu nintzenez nirekin beste 20 sartu ziren, egunero 50 lagun biltzen ginen Gurean zegoen frontoian. Gaur egun hemen bakarrik Urrea daukagu, eta nik ez dut ikusten atzetik gazterik datorrenik".

Arrasaten pilotari ugari izan dira: "Onena, Mondragonés, guztion maixua izan zen. Baina beste asko ere, Bolinaga, Zurdoa, Tadeo, Txikito de Mondragón, Sagasta, Pako, ni..." Hilaren 6an, hain



"Orain ez du pelotari askok urteten"

zuzen, bete zen urtebete bere anaia Pako, pilotari bikaina ere, hil zenetik.

Pilotak gaur egun diru asko mugitzen duela gauza jakina da. Lehen ere berdina izango ote zen jakin gura izan dugu; "ba, bai. Proportzioan, orain mugitzen den beste". Orain dela gutxi, bestalde, publizitatea ere sartu da pilotaren munduan, "kamisetakoa ondo ikusten dut. Baina ezkerreko paretakoa, ez. Badago beste leku asko frontoian publizitatea ipintzeko".

Joxek ez du oso garbi ikusten pilotaren etorkizun hurbila. "Orain badakigu beti zeintzuk sartuko diren finalera: Retegi eta Tolosa edo Galarza; besteak maila bajuago batean daude. Lehen asko ginen goian, lehiaketa zabalagoa zen. Gainera Retegik badauzka 34 urte; Tolosak, 33; urte asko dira, eta euren atzetik ez da gazte on asko ikusten. Aterako ahal dira!, baina ez dakit..."

Amaitzeko esan behar, Joxe ere, gehienok bezala, oker ibili zela finalerako pronostikoa ematerakoan.

□ Besaide: Orbaizeta - Donibane...eta "Herri Urrats"era


Ibilaldi polita asteburu honetarako Besaidek antolatu duena. Larunbatean, 6,30etatik Garibaitik hasita, Orbaizetara abiatuko dira mendizaleak. Hemendik Urkuluraino ibiliko dira; bertan bi ibilbideren artean aukeratu beharra izango da; bata, Txangoa - Mendi Txipi - Astoorizkar; eta bestea, Ateka - Ayuso. Orreagan busa hartuta, Donibane Garazira, herriari bisitaxo bat eta Baigorriko aterpera lo egitera. Igan-dean egun osoa Senperen, "Herri Urrats"en parte hartzera. Ez ahaztu frankoak, janaria (aterpean ez dute ematen), karneta eta argazki - makina; aterpean 50 lagunentzako baino ez dago oherik; bestek, kanpin denda.

KIROLAGENDA

- **futbola: larunbatean:** 4,15etan, Mondra - Hernani; Setan, Almenen: Eskoriatza - Arrasate (2. gazte - mailakoa); **igandean:** ; 12 etan, Mondragon - Lizeoa (Ohorezko Liga); Setan, Oken-do - Anaitasuna (neskak);
- **Gorlara II. moto igoera: larunbatean,** 3,30etan
- **rugbya: larunbatean,** 4etan, Arrasate - Unibertsarios.
- **pilota: larunbatean,** 4,30etan Bergara: Ansola - Errasti — Anso-tegi - Urrea. Vergara II-Zezeaga — Ladutxe-Galartza; **igandean,** Bengoetxea IV-Maiiz II — Alustiza-Aldazabal II; **astelehenean,** Bengoetxea IV - Martinik. — Alustiza-Etxenagusia **astearte**an, Retegi II-Zezeaga — Vergara II-Galartza III.

Denborapasen soluzioak
Nahaste-borraste
Pako Aristi


inpresio ona



inprimategia eta
autoedizio
zerbitzuak

Ozaeta 1, Tfnoa 76 27 41 BERGARA

Andamiaketa eta molde berreskuragarrirako CAD sistema



Loyolako basilikaren kupularen berrikuntza

ULMA, koop. Elk. eta IKERLANen arteko laguntza teknologikoa programaren ondorioz, ULMA eta

IKERLANeko Proiektuen Injinerutza Departamentuak ikerketa eta garapenerako proiektuak garatu ditu, andamioen eta molde errekupegarriaren faseen diseinuan eta aplikazioan zenbait aspektu automatizatzeke asmoz.

Proiektu honen helburua CAD sistemaren garapenean datza (ordenadore bidezko diseinua), edifizio, gordailu, etabarren forma geometrikoak estaltzeko behar diren andamioen egitura metalikoa diseinatzeke. Era berean, elementu horiek eraikuntza muntaia eta konponketa-obrek eskatzen dituzten baldintzak betez. Horretarako, andamioen diseinurako programan bi atal bereiztu dira:

Aipatu geometriak ordenadore bidez diseinatzea eta burutzea, aldagai ugari eta ezberdinekin (leihoak,

balkoiak...); eta proiektu bakoitze-rako behar den moduko andamiaketa, grafiko bidez egitea eta ikusteraztea, berau era erdiautomatiko.

Behar den andamiaketa egiteko sistema erabiltzeak hein handi batean murriztu egin du diseinu-faseko denbora. Gainera, uneoro material zerrenda daukagu eta programari fabrikazio-gamako zenbait elementu erabiltzen lagatzen dio, berau bezeroak ezarritako exigentzietara egokituta.

Garrantzi handiko aspektua: andamiaketa zuzen eta egoki diseinatu dela, pantailan egiaztatzeke aukera izatea.

Bukatzeko, sistema hauek salmentetan duten eragina dela medio, aipatu behar dira, alor honetan ULMAREN posizio teknologikoa eta bere bezeroei eskaintzein dien zerbitzua.

SEAT

Udalaitz, S. A.



**GARANTIA RIK
SENDOENA!**

Tailerra: Musakola Auzoa, z/g

Erakusketa: Zarugalde, 35 etxebehea

Tfnoak: 79 21 25 - 79 18 80

ARRASATE

JOSE MARIA ARZAMENDI Doktorea

*Kirurgia orokor eta liseri-aparatukoa
Kontsulta astelehen eta ostegunetan,
5,30etan hasita aurrez ordua eskaturik.
Igalatorioa mediko kirurgikoa*


Lagun-Aro eta beste aseguro batzuk

Biteri Etorbidea, 2 - 11 Tfnoa: 79 21 73 ARRASATE

“ PAL ”

burdingegia, brikolage
eta
tresneria

Uribarri etorbidea, 3
Tfnoa 79 31 99




ZENBAKI

Gaiak: Kontabilitatea
Fiskalitatea
Lana
Zuzenbidea
Juridikoa
Finantzaketa
Aseguruak

BASABE INDUSTRIALDEA
ARETXABAETA (Gipuzkoa)
Tfnoa: 79 88 75
79 75 99

Formulako lasterketen espektakuluaz



nak besterik ez zizkioten aurkitu.

Formula 1ak eta bestelako auto-lasterketa guztiak arriskua dute amankomunean. Gidariantzat batez ere, baina sarri askotan ikusleentzat ere bai. Hala ere, gero eta ikusle gehiago dute, eta autogileek gero eta diru gehiago erabiltzen dute horretarako. Zer dela eta?

Izugarría izan zen. Formula 1eko Italiako Sari Nagusia ari zen jokatzeko Milanen. Geralde Berger piloto austriarraren autoak pista utzi, segurtasun-hesia jo eta halako batean gelditu egin zen. Bapatean, sua sortu eta auto osoa jarri zen garretan, gidaria barruan zegoela. Amaiezina izan ziren segundu batzuen buruan, laguntza-zerbitzuak iritsi ziren, sua itzali eta gorpu uste genuen gorputza atera zuten. Inoiz gertatzen den mirakulu horietako bati esker, pilotoa bizirik zegoen eta zauri ari-

Lasterketa hauek, lehenik, laborategi ezin hobea eskaintzen diete autogileei teknika berriekin esperimentuak egiteko. Egoera estremoetan proba daitezke teknika horiek, gero serieko autoetan erabilgarri diren ala ez erabakitzeko. Duela bospasei urte, adibidez, turbokompresorea bolido batzuk zuten sorginkeriatzat jotzen genuen eta gaur berriz turboz inguratuta gaude.

Ikusleen aldetik auto-lasterketak ikusgarriak direla ez da perogrullada hutsa. Sinestezineko abiadak, arris-

kuak berak eta lasterketa horien inguruko zirkoak erakarri egiten dute ikuslea. Beste kirol batzuen ondoan, heriotzaren hurbiltasunak morbo berezia damaio auto-lasterketari.

Eta azkenik ezinbesteko publizitate, hemen ere. Ikusle asko dagoen gertakizun guztietan bezalaxe, iragarkiz josita agertzen dira bai pilotoak baita autoak ere. Tarifa zehatzak sortu dira autoa zatikatu eta kokapen bakoitzaren balioa finkatzeko, harategietako ganaduaren despieziko marrazkien antzera. Diru horrek arintzen ditu autogileen gastu ikaragarriak.

Aurrera bada. Berger austriarra onik atera da oraingoan. Morboa zerbitzatua dago. Jarrai beza espektakuluak.

Mikel Intxausti

ATOR



PEUGEOT TALBOT

INDAR DINAMIKOA

**P-405 DIESEL eta
TURBO-DIESEL
INTERCOOLER BERRIA**

Arrasate, Gipuzkoa Etorbidea z/g

Tfnoa: 79 94 11

Bergara, Torrekua 2, Tfnoa: 76 23 75



HITZALDIA

GAIA : HONDAMEN EKOLOGIKOAK: NORANTZ DARAMAGU MUNDUA?

- OZONOREN GERUZAK SORTZEN DITUEN ARAZOAK
- BEROTEGI EFEKTOAK ETA DESFORESTALIZAZIOA

HIZLARIAK: ELHUYAR Taldeko partaideak diren:

- JOXERRA AIZPURUA
- IÑAKI IRAZABALBEITIA

EGUNA: MAIATZAK 16, ASTEARTEA

ORDUA: Arratsaldeko 7etan

TOKIA: AEDren lokalean

Haurrekin jolastu, zergatik? (3)

Duela 15 egun, haurrekin jolaste-ko baliagarriak diren abestitxo labur batzuk eskaintzen hasi gintzaizki-zuen. Gaur ere halakoeekin jarraitzen dugu, denak hemen bailaran jasoak direnez, pena merezi dutelakoan bait gaude.

(Eskuak atzean gordez, asmatu egin behar da zenbat atzamar dau-den)

*Atxia motxian pirilinpan
nere semia errotan
errota txikian klin-klan
botikario kandelario
hemen atzien zenbat hatz*
(L. Otadui, Udala)

*Pote, pote, pote
txakur txokolate
Arabako baltza
txakur ipur baltza*
(T., M.K., eta A., Mendiola, Eskoriatza)

*Antonio Geronio
Paskula Bixente
antxinako nobixia
aurrean presente.*
(L. Bengoa, Arrasate)

*Antxon bat eta Antxon bi
Antxon potzura erori
erori bazan erori
ezta behinguan ageri.*
(C. Oteiza, Bergara)

*Amak esan dit
Aitak esan dit
zu, zu, kaka musu!*
(L. Bengoa, Arrasate)

*Bat bi hiru eta lau
hamar hamalau
aitak saldu nau
amak erosi nau
Bilboko alkate zaharrak
preso hartu nau.*
(L. Otadui, Udala)

*Muringo landetan
kukua kantetan
gure mutikotxuak
(neskatilatxuak)
Kaka fraketan.*
(S. Kortabarria, Oñati)

*Zer dozu negarrez
aitak egindu eta
amak emon nahi ez?
amak emongo balust
amai hamaseiko
ezkonduko nintzake
udaberrirako
udaberria datorrenian
nik jakingo dot zer egin
hartu atxurra, palia eta
Nafarruara teila egin.*
(B. eta R. Eraña, Arrasate)

*Klarion taldea
(Marian, Matilde, Nerea eta
Juanjo)*



omu mosaikoak

Zeramika-Erakusketa: Otalora Ilean

Biltegi berria: Meatz Erreka

ARRASATE

**ARRASATE
PRESS
astero zuekin**

J. ROBERTO GUERRA DERMATOLOGOA

**Azal, ile eta atzazalaren gaixotasunak
Azaletiko alergia**

Lagun Aro—Orotako Medikuntza Kirurgikoa—Asisa—Adeslas—Previsa—Ipresa

Kontsultak arratsaldetan

Otalora Lizentziatua 29, 2. esk. Tfnoa: 79 80 80 ARRASATE

**MARTINEZ
aroztegia
Sukaldetan
neurri guztietako
altzariak**

Araba Etorbidea, 13
Tfnoak: 79 22 81/ 79 18 41

ANDERE
*Bainu eta
sukaldeko*
ALTZARIAK

Erakusketa: Erdiko kale 52, Tfnoa: 79 83 77 ARRASATE

*Sukaldeko altzariak neurrira egin eta ezarri.
*Lehen mailako elektrotresnak sukaldearekiko itxuratuak eta neurrira ezartzekoak.
*Egituraketa proiektuak konpromesurik gabe.
*Diseinu altzarietan trebatuak gara.

Maiatz
**ILEAPAINDEGIA
mixtoa**
Elkano, 38 (Musakola)
Tfnoa: 79 58 78
ARRASATE

Forma fisiko ona (II)

Orain badakigu jakin, forma fisiko ona zer den, ikasi berria bait dugu; eta aste honetan berriz guzti hau lortzea zerk mugatzen duen ikusiko dugu. Bost dira garrantzia duten faktoreak: Lehenengoa: **GORPUTZAREN KONSTITUZIOA**: soineko gantzen eta muskuluen edukina, gorputzaren itxura eta proportzioak, eta era berean pisua eta altueraren arteko erlazioa. Pisuaren eta gantzen gehiegikeria kaltegarria gertatzen delako, batez ere.

Bigarrena: **ZALUTASUNA EDO FLEXIBILITATEA**: Artikulazio bakoitzak duen mugitzeko erradioa eta desplazatzeko gaitasuna dugu hau, muskuluen mugikortasunean eta kontrolatzen dituzten loturen edo ligamentoek esker lortzen delarik.

“Jogientzat” flexibilitatea eta gaztetasuna gauza berdinak dira. Zalu edo flexible mantentzen den

gorputza, gorputz gaztea bait da.

Hirugarrena: **MUSKULUEN ERRESISTENTZIA**: Muskuluek berezko duten lana betetzeko dirauten denboraldia izango litzateke.

Bostgarrena: **BIHOTZ-ODOLPI-DETZAREN ETA ARNASKINAREN FORMA ONA**: Bihotzak eta birikek oxigenoa muskulu eraginkorrei iristarazten dieten modua eta era berean hondakinak nola eliminatzen diren dugu.

Forma fisiko onaren oinarriko faktorea dugu hau eta horregatik honetaz lasaigo hitzegingo dugu hurrengoan.

Seigarrena: **BESTE FAKTORE BATZUK**: Forma fisiko onak baditu beste eragin batzuk, batez ere zure mugitzeko gaitasunarenak: Koordinazioa, oreka, bizkortasuna, erreakzionatze-denbora, mugimenduan abiadura, potentzia...

GARRANTZITSUA HIPERTENTSIOA DUTENENTZAT

Maiatzaren 16an eta arratsaldeko 7etan hipertentsioa duten pertsonen zuzendua, ikastaro bat hasiko da Monterron hitzaldi aretoan.

Pertsona hauei gaitza kontrolatzen erakustea eta bizi-kalitate hobea lortzen laguntzea izango da ikastaro honen helburua. Etortzen direnen kopurua efikaziagatik mugatua egongo denez, zu hipertentsioa duzun irakurle, interesaturik bazaude, Eukeni Olabarrieta doktorearekin jar zaitez harremanetan telefono hauetara deituz: 79 01 00 edo 79 24 05.

Eukeni Olabarrieta eta Arantxa Lizaso

BENGOA

ERAIKUNTZAK ETA BERRIZTAPENAK

Arkarazo Auzoa z/g Tfnoa: 79 21 76 Aretxabaleta

FAMILI ETA GIZARTE-HEZIKETARAKO ZENTRUAK

INFORMAZIOA: 3,30etatik 7etara

Sta. Teresa 12, Tfnoa: 79 04 59

Impi gozoak

Gosariak eta gozokiak

Zarugalde, 8
Tfnoa: 79 63 34

TXOKO TABERNA

Gure berezitasunak
pintxo eta mokau
gozoak

Korpus-eko Zubia

Maiatzaren 24etik 28ra

- * Salou—10.000 pta.
pertsonako;
gela bikoitza.
- * Portugal—18.500 pta.
pertsonako,
gela bikoitza.
- * Paris—21.000 pta.
pertsonako,
gela bikoitza.

Kontzesiño, 2 Tfnoa: 79 14 06

**Bergarako Udalak herritar guztiok agurtu
eta jai zoriontsuak opa dizkie**

BALLETS BASQUES DE BIARRITZ



OLDARRA

**MAIATZAK
12**

**PILOTA LEKUAN
BERGARA**
Sarrera: 500 pta.

**ORDUA
11etan**

BERGARAKO UDALA

ETXEBIZITZAK

- Garajea salgai Erdialdean. Tfnoa: 79 19 23
- 60m²ko merkataritzarako lokala salgai. Tfnoa: 79 74 80
- Arrasaten Mertzeria bat esku aldatzen da. Prezio interesgarria. Edozein negozio egiteko. Tfnoa: 79 65 78-79 79 16.
- Culleran (Valencia) pisua errentan eman nahi da urte osoan zehar. Tfnoa: 79 71 94.
- Guztiz hornitua dagoen ileapaindegia errentan eman nahi da. Interesatuek dei 79 95 86 telefonora
- Arrasaten pisua errentan hartuko genuke. Interesatuek deitu 79 54 31 telefonora (arratsaldeko 8etatik aurrera)
- Aldai-gainen pisua salgai. Sukaldea, egongela, 3 gela, eta garajea. Berokuntza zentrala. Interesatuek dei 79 71 93 telefonora.
- Pisua konpartitzeko neska bat behar dugu. Tfnoa: 79 69 82 (gauetan)
- Pisu txiki bat errentan hartuko nuke. Aurrez lehen hiru hilabeteak ordainduko nituzke. Miguelez galdetu (bazkalorduan). Interesatuek dei 79 97 34 tfnora.
- Torreveijan Bungalows-a salgai dago. Hilabeteak: Ekaina, Uztaila eta Iraila. Gaueko 9.30etatik aurrera deitu, 79 15 74 telefonora.
- Laredo: Apartamentua salgai. Interesatuek dei 79 52 80 telefonora
- Etxabea eta 2. pisua salgai Erdiko kaleko 6an; Tfnoa: 79 49 36
- Kontsulta medikoa jartzeko, pisua errentan hartu nahi da. Interesatuek dei 11 39 57 telefonora. Gauetan
- Udarako aproposa, Algotan pisua salgai. Bista onak, Aldapas poligonoa. 3 gela, egongela, sukaldea eta komuna.

Tfnoa: 469 82 69; gaueko 9etatik 10etara. Bitartekorik ez.

- Pisua salgai erdialdean. Interesatuek dei 79 29 82 telefonora
- Etxebizitza salgai Bergaran, Zubieta kalean. Interesatuek dei 76.38.55 (jatorduetan) edo 76.44.53 telefonoetara.
- Lehenbaitlehen pisua errentan hartu nahi dugu Arrasaten. Merkea bada hobeto. Tfnoa: 79 09 00. Lorea.
- Bikoteak, lehenbaitlehen pisua errentan hartu nahi du. Tfnoa: 79.70.29. Iñaki.
- Paper-jostailu denda esku aldatu nahi da Uribe Auzoan. Interesatuek dei 79 47 85 telefonora.
- Mutil eta neska! gelarik libre edo banatzeko baduzue, ondo etorriko litzaidake. Ez dut trabarik egiten. Lanean ari naiz eta egoteko tokia behar dut. Deitu 79.52.89 telefonora. Aste bukaeretan: (94) 484 90 53 telefonora.

- Eraikuntza irakaslea behar dugu. Interesatuek dei 79 79 38 tfnora.
- Alecoop-ek Kalitate Zuzendaria eta Merkatal Teknikaria kontratatu behar ditu. Interesatuek, datu pertsonalak eta curriculum profesionala 20.500 Arrasateko 81 postakutxara, Pertsonal-Departamentuari zuzenduta premia bidez bidaltzea eskatzen dugu.
- Emakumea behar dugu, etxeko lanak egin eta 7-12 urteko haurrekin arduratzeko, ahal balitz euskalduna. Interesatuek dei 79 51 50 tfnora, arratsaldeko 7.30etatik 9.30etara.
- Edozein lan egiteko pres nago. Kontabilitatea eta mekanografia menperatzen ditut. Deitu arratsaldeko 8etatik aurrera, 79 52 96 Tfnoa. Karmen
- Informatikako irakaslea behar dugu Paskal programaren klase partikularrak emateko. Interesatuek dei 79 99 82 telefonora. (Miren). Urgentea da.

LANA

- Emakumeak haurrak zainduko lituzke. Interesatuek dei 79 63 43 tfnora.
- Bergarako Udalak igeltzeroa kontratatu behar du, urte batez luzagarria. Oinarriak eta informazio gehigarria, Idazkaritzako bulegoetan.
- Bergarako Udalak Administrari laguntzailea kontratatu behar du, urte batez luzagarria. Oinarriak eta informazio gehigarria, Idazkaritzako bulegoetan.
- Bergarako Udalak Deliniantea kontratatu behar du, urte batez luzagarria. Oinarriak eta informazio gehigarria, Idazkaritzako bulegoetan

SALEROSKETAK

- Ia berri dagoen bi ohe tolezgarrizko armairua salgai. Prezioa elkarren artean jartzeko. Interesatuek dei 79 78 91 telefonora (3etatik aurrera)
- Motoreta bat eta karrerazko bizikleta bat salgai. Tfnoa: 79 52 96. Andoni
- YAMAHA XJ 650 c.c BI-8727-AD KRAUSER maletakin salgai. Dei gaueko 10etatik aurrera 79 80 88 telefonora. Santi.
- Land Rover 109 largo normal saltzen dut. SS-4456-T. Ia berria. Interesatuek dei 79 37 14 telefonora. Aitor.
- Bigarren eskuko paseo-bizikleta erosi nahi dut. Interesatuek dei 79.67.35 telefonora 9etatik 5,30etara
- "Minerva" balantza elektronikoa bat salgai. Interesatuek dei 79 11 60 Tfnoa.

† ARRASATEN HILDAKOAK

M^a Dolores Madinabeitia Elejalde, 76 urte
Maiatzaren 4ean.

Victorino Aracón Iglesias, 64 urte
Maitzaren 5ean.

J. Antonio Aniceto Kortabarria Galdos, 64 urte
Maiatzaren 7an.

Saturnina Tena Alfonso, 23 urte
Maiatzaren 10ean

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:.....

Zeharkale estalla 1,1b 20.500 ARRASATE Tfnoa: 79 71 64

Famauen ahotik



...hiru urte ein nittuen Arantzazun eta hillebete batzuk Foruan...

Maringo mutikuek fraille-bokaziño larreirik ez

Nik anai bat naukan fraille ikesten ta beste bat abare ikesten. Ta mutikotatik pa haizetzu samarra ta burrundarie darixola ibiltten nitzuan ta maistriei grazia eitten nutzan ta orduen fraille bat etorten zuan ta aber fraille juetie zeñek gure auen. Danak ixillik ta neu ta beste bat apuntetan gitzuan beti bañe juen...juete orduen nahiko motz.

Azkenien fraille juen

Bai, kuestifue dok nunbaitetik zeozer entzunde, kursue hasi tte gero etorri zala fraille bat. Ta aittek eta amak esan jutzien ba urrengo urtien izen biherko auela, erropaik pe ez aukiela preparaute ta...Ez aukela inportantziaik. Erropak gero be iguel bielketan ziela ta. Dudan ninguan bañe azkenien esan nutzien baietz.

Sermolari-etorrixte bai, bañe han be aspertu

Ni mutikotxue nitzela, Arantzazun, gabonetan eta, eitten nittuan batez be itzelezko bakarrizketak, teatrua, ta iguel ez nittuan mereziko bañe joten justien egundoko txa-

MAXIMO LETONA (1):
“Arantzazun frailliek sermolari ona izango nitzela esaten justien”

MARINDDARREN “ABIADURA AZKARREKO TRENA”

“Hor Gaztañoi Zaimutz parien eitten jittuan kristonak, aurreraka juen gero atzeraka etorri...Marindidk Gatzagara zuzen juenda egongo dituk, ba...pare bat kilometro, kaminoz juenda 3 eskas ta trenez 9 inguru”

Maximo Letona

luek. Ta pentsetan nauenien etzala ha bizimodue niretzat eta itxi ein biher nauela, fraillioek esatenjustien sermolari ikeragarrixte izengo nintzela, fraille ona izengo nitzela, eta mesedez jarraiketako, ta hola aguantau naixuan. Bañe lehenengotik pe haixe haundik barik juen nitzuan ta 14 urteaz urten ein naixuan ta profesionalera juen nitzuan.

Lehenengo pelota saiuek

Arantzazun frontoi bi jazan eta pelotan eitten gaixuan bañe jauan arazo bat: ginguzan 160 bat mutiko ta asko zittuan ba herrixen frontoie aukienak eta ondo eitten auienak eta guk ba pelotie zelakue zanik pe ez. Fueraka eitten gaixuan ta apur bat akixienak ba segi ta segi ta gu, ez gekixenok, beti kanpuen. Orduen ba han ez naixuan pelotan ein bañe afiziñue haundixe naukan. Ta 20 urteaz Erguiñera bizitten etorri gitzuan ta Iturripen hasi nitzuan. Hasixeran kriston kaliek eitten nittuan ta gañera eskuek minketan jatan bañe apurke-apurke trapuek ipintten ikesi ta hor 30 urte inguruen pelotan dezente eitten naixuan.

Estepan Plazaola eta Jesus Mari Garai

Zelebrequerixak

(Sail honetako ipuintxo asko J. San Martin-en “Zirikadak” eta “Eztenkadak” liburuetatik hartu eta moldatuak dira)

Behin, Plazentziako Meltxorrenian, jentez inguratuta, halako ahozabal batek zeroian sakia. Bazan han oillagorra, erbixa, tiro hotsa eta abarra. Tertulixako batek ziñuan:

— Laga, laga berorri, oin be botako jok botatzekon bat eta.

— Ba sinistu nahi ezpozue be oin kontatzen dihardutena egi egixa dok. Neu hementxe nagan moduan. Atzo illuntzian neure begixekin ikusittakua. Pagobedeinkatu-tik bera nentorrela San Andresian geldittu nitzuan keixa arbola batzuk daren txaran. Geratu banintzuan geratu nintzuan. Haura zuan haura. Jesus! Sentidu najuan eskupetarik eza. Hango sagastarro zozo-bidigarro eta abarrek etxaukan akaburik. Mutillak, mutillak, zer zuan haura! Hango zarraparra, hango hangua. Gutxien gutxienez bostehun bat bazittuan. Hoixe bai!

Inguruak mutu geldittu zien.

— Ze ba, dudia dago ala?

— Hi txotxo, badakik gero bostehun txori heguak zabalik zenbat dien?

— Eskolatik pe hi bestian banajaok ni gero e. Bostehun esan juat eta bostehun bostehun dittuk hemen eta Japonen. Neuk enajuan ba ikusi pixuan pixuz arbolia jausi biharrian...

— Bestiok ifuzentiak gala uste dok, ala? Plazentziako zeruan etxaok lekuik bostehun txepetx heguak zabalik kabitzeko.

— Hik zer dakik pa, sekula ez haiz Eibartik pe pasau ta. Bostehun ezpazittuan ezittuan urrin ibilliko.

— Hori beste gauza bat dok. Kendu beruana, kendu.

— Bueno, ehunen bat bazittuan behintzat.

— Tira, tira, ezta ehun be.

— Posturia jokatuko nostake gutxienez berrogetamar baziela.

— Berrogetamar larregi ez ete dok, larregi...

— Txara hartan zeuan zarrapariakin jokatuko neukek hogeitabostetik gora bazerela...


Juan Martin Elexpuru



URONDO elektrizitatea.

Nafarroa etorbidea, 11 Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

- * Elektrogaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak



JESUS ELKORO
 BIDEO - KLUBA

Tfnoa: 791886

ARRASATE



Auzo berrien hasierak

Duela hogeitamar bat urte garapen industrialak azkartu zenean, etxe mordoak jaso zen Euskal Herriko bazter askotan. Argazkian ageri diren auzorik gehienak ere orduan hasi ziren egituratzen: San Andres aurrekaldean, Munar eta Uribarri berria eskumakaldean. Dena den, hurrengo erteetan itxuratuko diren Erguin, Uribe eta abarren

aztarnarik ez zaigu oraindik azaltzen. Uribarriko eliza urruti eta bakarti ikusten da; Iturripeko futbol-zelai zaharra eskola politeknikoa egin aurretik zegoen moduan: Gasteiztik Mekolalderako trenbidea kentzeke; eta San Andres eta inguruetan, dagoeneko etxe pila ederra baldin badago ere, askoz gehiago eta gorago eraikiko da ondorengo urteetan.

Gerardo Elortza

— Fotozahar sariketa —

Zein santuren omenez ospatzen dira San Andres auzoan jaiak?

— *Joan den asteko irabazlea* —
Paula Mendizabal, arrasatearra
("Enparantza Jose Letonari eskaini zaio")

Egundoko Walk-mana
-VIGURI Bideo Klubak emana-
eskuratu nahi baduzu,
aste honetan bertan
postala bidali gure helbidera,
erantzuna emanez eta zure adina adieraziz:
Zeharkale estalia 1,1.b Arrasate



...eta gainera
VIGURIk

ITT NOKIA

hilaren bukaeran
14'ko koloretako
markako TELEBISTA BAT

zozkatuko du hileko parte hartzaile guztien artean
Iturriotz 33 eta Zerkaosteta 24. Arrasate

PROMOCIONES MARKULETE, S.A.

NABE INDUSTRIALEN

SALMENTA

Mendi-Etxebarrin

445 m² tatik aurrera sarbide zabalarekin

*Plantartekoa eta zubi-garaia, aukeran.

*Xafla bikoitz eta isolamenduzko estalkia

*Zerbitzuak: Saneamendua, telefonia, energia elektrikoa eta edateko ura.

Informazioa eta salmenta: Tfnoak: Gasteiz 28 67 60

27 79 60

Arrasate 79 97 95

IMI ZENTRURAKO MONITOREAK



ARRASATEKO UDALAK, urte beterako, IMI zentrurako 4 monitore kontratatu nahi ditu.

Instantziak hil honen 19a baino lehen aurkeztu behar dira.

1989 urterako beka, laguntza eta poltsak

Apirilaren 12ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren 69. alean argitaratu dira ondoko zerrendan adierazten diren laguntzak ematea arautzen duten oinarriak:

- 1.— Espezializaziorako ikasketa Bekak 1989-1990 ikasturterako, Arte Ederrak eta Errestaurazio, Artxibogintza, Museologia, Bibliotekonomia eta Kultura Kudeaketa arloetan.
- 2.— Sorkuntza eta Sustaketa Artistikorako Laguntzak.
- 3.— 1989rako Laguntza Boltsak eta Bidaia Boltsak.
- 4.— 1989 urtean atzerrian Hizkuntzen Ikasketa zabalatzeko dirulaguntzak.

IDAZKARI TEKNIKOA,



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Guipúzcoa

Kultura, Hezkuntza, Kirol eta Turismo Departamentua.
Departamento de Cultura, Educación, Deportes y Turismo.

1989 SAN JUANETAKO ESKAINZA BEREZIA EGUZKITARA

* MALLORCA

- Ekainaren 25etik Uztailaren 2ra.
- Pentsio osoko Hotela
- Haurrentzako beherapen bereziak
- Abioiak eta trasladoak
- Irteera Gasteizetik: 31.050 pta.

* MENORCA

- Ekainaren 25etik Uztailaren 3ra
- Abioiak eta trasladoak
- Apartamentua 4 pax: 36.500 pta
- Pentsio Erdiko Hotela: 44.000 pta

* TENERIFE-PUERTO DE LA CRUZ

- Ekainaren 25etik Uztailaren 2ra.
- Abioia(irteera Gazteizetik)+trsladoa
- Apartotel, pentsio osoa: 47.450 pta
- Apartamentua 2 pax: 39.550 pta

* BENIDORM

- Ekainaren 24etik Uztailaren 2ra
- Britainia Hotela, pentsio osoa
- Autobusa (irteera Arrasatetik)
- Haurrek doan (2-10 urte): 24.850 pta

* SALOU

- Ekainaren 24etik Uztailaren 2ra
- Europa Park Hotela, pentsio osoa
- Autobusa (irteera Arrasatetik)
- Haurrek doan (2-10 urte): 23.200 pta

VIAJES

EROSKI
BIDAIAK

Maestro Arrano 8
Arrasate. Tfnoak} 79 99 22

Iragana. Gero eta lehenago hasten omen gara gazteok lehenaldian mintzatzen, oraindik hain urruti ez dagoen iraganaren bila, Proustkume goiztiarrak. Horretan ari zaigu Jon, geroa eraikitzearen nekealdiak pairatzeko, pasatako istorioetan murgilduta.

G.M.

Hainbat eta hainbat istorio heavy-metal

Gau eta egunak, ordulariaren tiki-taka monotonia jarraituz. Hainbat eta hainbat aurpegi, hainbat eta hainbat gizon eta emakume gelditzen dira bide bazterrean bizitza aurrera doan heinean.

Izen eta abizen ahaztuak, galduak.

La salle, Don Bosco; Marianista edo Jesuiten parafernalia ustela. Non ote daude klaseko hogeita piku kide haiek?

Non arraio sartu dira?

Langarika, Imanol Basterra, Joxe Perdomo, Jexus Tapia.

Non?

Udaletxe arkupeetako pilota partiduak. Binaka, edo bata bestearen aurka norbere trebetasun eta abileziak erakusteko, oihukatzen; den-dena herriko neskatxa lirainen galai izatearren, bihurtzearren.

Jeden asko elkartzan zenean futboleko, noski. Denak parte hartu nahiean, inork ez bait zuen nahi besteen jolasak soilik begiratzea.

Partizipazioaren defentsa amorratua, sutsua.

Zurumurruren erreinua. Beti ere aldamenekoaren kaltea bilatuz inbidiak sortzen duen mendeku nahia asetzeko. Fulanok hau egin duela, Zutanok hori esan duela.

Eta Menganok?

Menganok hau egin eta hori esan duela.

Hi haiz hi kabroia, Mengano!

Lehenengo zigarroak izkutuan, goiko pinudian edo erreka beste aldeko edozein zelaitan. Celtas paketea, noski, diru urritasunak behartuta. Ea nor gizonago, ea nork zigarro gehiago erre kearen zorabioa jasanez.

Etxean lapurtutako ardo botilak eta dozena erdi lagun, guztiak bizitzako lehen mozkorraren bila.

Lehen mozkor galanta...

Eta baita harrapatu ere, horixe baitz.

Gero, beldurrez dardarka, izerdiz blai etxera itzuli Aitari eta Amari den-dena azaltzeko, esplikatzeko.

Zigorak ere hala heltzen ziren.

Hamairu, hamalau urte. Neska-mutil bikoteak malekoian gora eta malekoian behara, maitasun jolasetan.

Galdera pila buruan. Urduritasuna.

Ez ote dut nik neretzat neskatoren bat aurkituko?

Saiatu bai, saiatu. Igande arratsetan, zinera sartzeko lerroan elkarri jaurtitako begirada maltzurak. Herriko jaietan, dantza eskatzerakoan. Saiatu bai. Ya lo crea.

Batzuk baita lortu ere.

Heriotzarekin aurrez-aurre lehen aldiz; Aitonaren gorpu geldia, bere aurpegi horixka. Nola demontre sartu buruan ez zuela gehiago etxeko ataria zeharkatuko, jada ez zela igandero tabemara jeitsiko lagunekin karta jokoan aritzera?

Aitona zaharra, Pagozko kutxan sartua, geldo-geldo.

Gauetz, logelako bakardadean, malko bihurriak aurpegian behera. Eta beldurra, itzulerarik gabeko bidaiak eragindako beldurra gorputz osoa astinduz.

Guzti hori gauetz, logelako bakardadean.

Ez al zaizu zuri gertatu?

Ziur ezetz?

Egunak eta gauak, ordulariaren tiki-taka monotonia jarraituz. Hainbat eta hainbat aurpegi.

Hainbat eta hainbat istorio.

Jon Andueza.

Goiztiri
Opariak

Maalako Errebala, 11
Tfnoa 79 87 43

UDALA

Auto-eskola
Minusbaliatuentzako
klase bereziak
Otalora, 25 Tfnoa: 79 88 56



KILI-KOLO

Ferrerias 21
Tfnoa. 797006
ARRASATE

■ **Publizitate politikoa Arrasate Pressen:** Badatoz Europako Parlamenturako hauteskundeak. Aurrekanpainaren arrastoak nabariak dira honez gero gure herriko horma eta poste askotan. Zer egingo du, bada, Arrasate Pressekanpainaren aurrean?

Aire Politikoa edo sindikala duen publizitatea atera dugu orain baino lehen: Martxoaren 18ko manifestaldiarena eta Maiatzaren batekoa. Bateron bati txotina eragingo zioten iragarkiok, baina ez dut uste inor zainketa berezietako gelara eramateko modukoa denik.

Jokoaren arauak eta auzoaren duintasuna errespetatzen diren neurrian, orri hauetan gure herrian dagoen aniztasun politikoa ispiatzea ona dela uste dugu. Horren ondorioz, Arrasate eta inguruetako hormak garbiago egongo balira, hainbat hobeto.

Horregatik, Mondragoeko alderdi guztiekin egin dugu berba eta publizitatea egiteko aukera eskaini. Denak jakinarean gainean daude, eta badute gure prezioen berri. Kanpaina on, guztioi!

■ **Euskaratutako bideofilme gehiago bidean?:** Ez omen dago birik hirurik gabe eta jakin izan dugunez, Eusko Jaurlaritza euskaratutako bideofilmen hirugarren labazoa prestatzen ari da. Txanda hau aurreko biak baino merkeago irtengo omen zaie, ETBk egindako bikoizketez baliatuko dira eta. Iragarritako tituluen artean, hauexek: *Ben Hur*, *Victor & Victoria*, *Jeremy Jhonson*, *Bonnie & Clyde*, eta Spielbergen *Arka galduaren bila*. Batzuk zahar samarrak badira ere, badute erakarmena. Hauekin batera, eta etxeko ekoizpenak falta ez daitezten, *Kalabaza tripontzia* eta *Abenturak eta kalenturak* ere aterako dituzte. Uztaila alderako bideo dendetan.

■ **Espainiako Vuelta:** Geroz eta garbiago dago txirindularitza ezin hobeto uztartzen dela telebistarekin. Badirudi bata bestearantz daudela eginak. Errepideetan nekez ikusiko da lasterketa telebistaz baino hobeto. Motorrak, kamarak, helikopteroak eta satelitei esker irudi biziak, koloretsuak eta indar eta emozioz beteak ikusteko parada dugu, geure pantailetan.

Komentarioena, ostera, besterik da. Tamargotarren kalamatika txobinistak ez entzutearren, jende askok teleaparailuaren bolumena itxungi eta hemengo irratiaren baten ahotsa jartzan zuen/du. Aurten Euskadi Irratiak, azkenik, Espainiako Vueltaren etapa guztien azken ordubetea zuzenean euskaraz segitzeko aukera eman digu. Ez gara gutxi izan eskaintza hori aprobetxatuz TVE-ren irudiei Iñaki Elortza, Fermin Arzamendi eta Arritxu Iribarren ahotsak erantsi dizkiegunak.

Joxe Aranzabal



gusto baduzu

■ **Denborapasa,** ostiralean, 15,00etan. Aste honetan Senperen grabatua, bertako Pierrot Gofirekin elkarrizketa izango delarik. Bost erreportai: Azpeitian igandean izango den "Haur Abesbatzen Eguna"; Pasaiko Aurreku txapelketa; Sestaoko bideokreazio erakusketa; "Herri Urrats" eta mendi-ibilbideak.

■ **Kirol erretransmisioak,** ostiralean, 23,15etan Iruñeko Oberena pilotalekutik, sare eta eskuz binakako finalak; saskibaloia, larunbatean, 19,55etan ETB 2an (euskaraz): finalaurreko play-offaren laugarren partidua: Ram Juventut - Real Madrid; larunbatean ere, arratsaldeko 7etan, Irunetik zuzenean eskubaloia: Elgorriaga Bidasoa - Teko.

■ **Reds** ("Gorriak", 1981). Larunbatean, 22,10ean Zuzendaria: Warren Beatty; Antzezleak: Warren Beatty; Diane Keaton; Jack Nicholson. Film honek, John Reed Estatu Batuetako kazetari eta idazle ospetsuaren azken urteak azaltzen ditu.

bideoak



David eta Goliath: Berrogei egunez inor ez zen ausartu israeldarren artean, Goliath erraldoi filistearren erronka jasotzera, David artzai eta salmo abeslaria, abaila hutsez, erraldoiari aurre egiten ausartu zen arte.

Hauxe duzue Bibliako Pasarteetaz osatutako bildumaren azken kapitulua.

OSTADAR IRRATIA

(102 F.M)

Ostirala


3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)
4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasiko)

Azteazkena

4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)

Osteguna

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako grabaketak).

			LO	DI	HA	RI	A	MA	RRI											1		
			SEI	MUTS	AS	PAI	RI	TSU	SA													2
			OS	E	PI	TA	TA	PA	RA													3
SA	RA	TRU	LI	TI	MOI	TI	I	SAN	KA											4		
KA	TE	KO	I	BO	BAT	A	RO	TZA	TU												5	
																				6		
																				7		
																				8		
																				9		
																				10		

Nahaste-borraste

Bete ezazu kuadroa definizioei dagozkien hitzekin eta lehenengo zutabearen argazkiko euskal idazlearen izena agertuko zaizu. Ondoren ezaba itzazu ezkerreko nahaspilan aurkitutako hitzen silabak eta gelditzen direnek pertsonai honen ipui baten izenburua osatuko dute

- | | |
|---|--|
| 1) Frontoian jokatzeko | 6) ARN-aren osagai den gluzidoa |
| 2) Poliki | 7) Nahi handia, desioa |
| 3) Puntarik gabekoa; "zorrotz"en aurkakoa | 8) Meloiaren familikoa den baratzeke fruitu bat |
| 4) Berriz | 9) Ekaitz batean eta tximistaren ondoren iristen zaigun zerutiko hotsa |
| 5) Zuhaitz mota bat | 10) Ikusmena galdu |

Soluzioak: 19. orrialdean.

P. Mokordo

Horoskopoa



ARIES
Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Aspaldi honetan oso sorte ona izan duzu, ez badiozu probetxurik atera damutuko zara, hemendik aurrera horrelako egoerarik ezin izango duzulako berriz harrapatu.



LEO
Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra

Lagun bat edo dirua galtzekotan, laguna galtzea nahiago zenuke. Ondo egiten duzu, azken finean, daukazun lagunek ez dute asko balio eta.



SAGITARIUS
Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Zure trena pasatu da iadanik, txarrena da ez zarela konturatu. Dena den, beste batzuk etorriko dira oraindik, erne ibili eta hartu dago-kizuna.



TAURUS
Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Beti rollo berdinarekin bueltak ematen, kokoteraino daukazu ingurukoak. Jasanezin bihurtzen ari zara. Ahaztu rollo hori, behintzat lagunekin, zauden bitartean.



VIRGO
Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Daukazuarekin konforme ez bazaude, saia zaitez gehiago lortzen, zerutik ez zaizu ezer eroriko eta. Arrainak nahi dituenak badaki zer egin behar duen.




CAPRICORN
Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra

Nondik nora ez dakizula ibiltzen zara nahi duzuna zer den jakin gabe. Lasaitu beharko zenuke eta irtenbidea aurkitu arazo horiei.



GEMINI
Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Laguntzarik eskatzen ez baduzu eskatzen buruan duzun proiektu hori ez zara gauza izango bakarrik aurrera eramateko. Ez duzu uste duzun besteko kapazitatea.



LIBRA
Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Ez zara ezertaz konturatzen. Jokua aspaldi bukatu zen eta zu oraindik jolasten. Azkarra- go ibiltzen ez bazara atzean geratuko zara.



AQUARIUS
Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Dena ez duzu eginda aurkituko, baina izu-garrizko laguntza jaso bai. Ez galdu ba auke-ra hau, ez da egunerokoa eta.




CANCER
Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra

Orain arte zartagina girtenetik hartuta ze-nukan baina gauzak aldatu egin dira. Hartu-tako ohitura txarra horiek aparte uzten ez badituzu, gaizki ibiliko zara.



SCORPIO
Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Alferkeria haundiz zabiltza aspaldi honetan. Eguneroko lanean asko nabaritzen denez ea zerbait egiten duzun egoera horrekin bukatzeko, oporrak ez bait dira hain urrun.



PISCIS
Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Datorren astean gaixorik ibiliko zara. Bai buruan bai bizkarrean sentituko duzun mina, horregatik egingo duzun guztia gaizki atera-ko zaizu. Baina ez desanimatu, pasatuko da eta.



Ekainaren 15eko hauteskunde-mahien lehendakariak

Gaur, ostiralean, 10,30etan, idazkari eta alkatearen aurrean, datorren Ekainaren 15eko Europako Parlamenturako diputatuak hautatzeko hauteskundeetako mahietako lehendakariak zozkekatu dira, honako hauek irten direlarik. Beraien etxebizitzetan jasoko dute abisua.

EL Ferial

Gonzalez Etxebarria Miguel
Angel
Roa Bedia Susana M^a
Galdos Galdos José Luis
Lazkano Goitia José Luis
Gorrotxategi Agirre José M^a
Iñurrategi Viteri Tiburcio
Elkoro Iturriaga Agustín

Zulueta Errasti Arantza
Fernández Arkauz Pilar

SAN ANTOLIN IKASTETXEA

Elizaran Egidazu José Martín
Ortubai Zenitagoia Rafael

SANTAMAINA AUZOKO-ALKATETZAN

Gómez Rodriguez Juan Rafael
Sánchez Murillo Agripina

SANTAMAINAKO ESKOLAURREAN

Gonzalez Asensio Rafael
Sánchez Davila Diego Antonio

SAN ANDRESEKO IKASTETXEAN


Elorza Torres Julio Ignacio
Mentxaka Agirreurreta José M^a
Zalakain Etxarte José Luis
Fernandez Arias Concepción
Mas Cubillo M^a Angeles
Valle Sedano Jesús

ERGUINGO IKASTETXEAN

Arana Leibar Eva M^a
Lopez de Bergara Beitia Juan M^a
Arana Arrieta Eduardo
Salaberri Agiriano Juan M^a
Ibarguen Alonso M^a Isabel
Uriarte Idigoras Iñaki

URIBARRI AUZOKO ZAITEGI IKASTOLAN

Iria Orue Joaquin
Zuazubiskar Etxabe Izaskun



FAGOR

iKER

**SUKALDE
LILURAGARRIAK**

ARRASATE

Bainugela-erakusketa: Zarugalde kalea 52, Tfnoa: 79 99 42
Sukalde-erakusketa: Udala Plaza z/g, Tfnoa: 79 00 42